



GOIERRITARRA

Festetan jarraitzen dugu



Arg.: L. Agirre

24-KOA EDO 36-KOA
ERREBELATZEAN:
KARRETE BAT OPARI!

-Orain, Beasainen, denda berrian: zerbitzu hobea

BEASAIN
FOTOETXE

ORDIZIA
FOTO Coen



h e m e n

DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 88 46 41



ZURE ETXERAKO NAHI DITUZUN

ALTZARIAK



HARRIA GRESAK

BERRIKUNTZA OSOAK

Festak ondo pasa!



Diseinuak
Proiektuak
Erreformak

*Gure erakusketa berrian
zure zain gaituzu*

Tfnoa.: 88 54 66
Zelaeta, 1

Faxa: 16 19 75
BEASAIN

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzordea:

Jon Arano, Mikel Albisu, Joseba
Telleria, Ane Martin, Loinaz
Agirre eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Xabier Urteaga, Rufino Iraola,
Koldo Urrestarazu, Urko Irastor-
za, Josune Aldabe, Edurne Albi-
zu, Izaskun Salazar, Josune
Amondarain, Pako Zubeldia, Pe-
llo Barandiaran, Andoni Sarrie-
gi, Xabier Mendiguren eta Aloña
Galarraga.

**Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.300 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Idea berriztatzaileen 1go sariketa

Goiekik, Goierriko gara-
pen agentziak, martxan ja-
rria du 'Goierrri 2005 Idea
Berriztatzaileen Lehen Sari-
keta'. Eskualdean enpre-
sak sortzeko egitasmoak
saritu nahi dira eta bide ba-
tez enplegua bultzatu. Eki-
men honetarako eskualde-
ko 13 enpresek eta 'Adapt'
programa europarrak
ematen dute dirulaguntza.

Edozein pertsonak har-
dezake parte eta baldintza
bakarra bere ideia Goierri-
n kokatzea izango da. Idea
eta proposamenak maiatza-
ren 19a baino lehen aur-
keztu behar dira Goiekiren
lokaletan.

Sariak bi eratakoak
izango dira: dirulaguntza
lehen bi sarituentzat (lehe-
nari 1.000.000 pezeta eta
bigarrenari 200.000 peze-
ta) eta 3'8 milioi pezetatan
baloratutako asesoritzatza-
le, formazio ikastaroa eta la-
guntza logistikoa (pabilioi,
telefonoa, faxa, ordenagai-

luak...) aurkeztutako ideia
hoberenen egileentzat.

Izaera berriztatzailea;
ideiak Goierri bailaran izan
dezakeen aplikabilitatea;
eta enplegua sortzeko gai-
tasuna hartuko ditu kontu-
tan epaimahaiak. Hauek
osatuko dute epaimahaia:
Goiekiko eta Goierriko
bina ordezkari, Goierri
Langintza Eskolako orde-
zkari bat, Secot-eko (enpre-
sario senior) bi ordezkari,
banakako ordezkari bat eta
bi enpresari.

Ekimen honen aurkez-
penean CAFeko Andres
Arizkorreta zuzendaria eta
Irizar Kooperatibako ge-
rentea den Koldo Sara-
txaga izan ziren. Euren be-
netako konprometua sari-
keta bukatutakoan hartuko
omen dute, ekimen berriak
bultzatuz. Enpresariak po-
zik hartu dute ekimena.

Informazio gehiago
161831 telefonoan duzue.

BOTA BERTSOA



Iñaki Apalagi

**Jaiak gauzez ala
egunez nahigo?**

**Doinua: 8ko handiko
edozein**

Festa hauetan aurki daitezke
aza, antzar eta bare
egunez edo gauzez hobeto
kezka hor dago halere
baina egunez ez da aurkitzen
giro onik inon ere
hau da, giroa egunez dago
herritarrak bezain bare.

Gauzez gustora mundu guztia
egunez ezin asmatu
jende pila bat erakartzeko
erabakia dut hartu
baina herriko gertakizun hau
ezin da bertsoz kantatu
neri entzunda baino hobeto
etorri eta kontatu.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Beldur asko eta lotsa gutxi

Aldizkari honetako 112 zenbakian aukera izan dugu Goierriko EGI-k ateratako eskutitza irakurtzeko, eta irakurri ondoren betiko nazka sentitzeko. Egia da gauza berririk ez duela esaten eta erreza izango zen kasurik ez egitea eta eguneroko errealitateari eustea erantzun gisa. Baina nire ohitura ez izan arren oraingoan zuzenean erantzun nahiko nuke.

Esaten dute beldurrik ez dutela, lotsa baizik. Gauza harrigarria kontutan hartzen badugu, beldurti lotsagabe batzuk direla.

Jakin badakigu, zergatik eta nola bete dituzten ehun urte. Euskal Herriaren nortasuna defendatzen ez behintzat, hortarako behar den kementa eta adorea ez dutelako sekulan erakutsi. Alderantziz, hitz handietan gordeta

egunero ikusten dugu nola saltzen duten gure herria. Etsaiari etxeko ateari irekitzen eta seme zintzoenak zigortzen.

Espainian eroso sentitzeko Euskal Herriko eskubideak baztertu lau txanponen truke, eta egoera hori salatzen duten euskaldunei egurra eman, jipoitu, atxilotu, torturatu, erahil, etsaien eskuetan jarri herritik ehundaka eta milaka kilometrora mantentzeko; hauek ere jipoituak, torturatuak, fisiko eta psikikoki desagiteko, gure senideak eta lagunak ere zigortzeko. Beraz milaka euskaldun zigortuak PNV-ren laguntza estimaezinarekin.

Jokaera horren ondorioz, lasaitasuna galdu dutela eta agertzen dira biktima bezala. Gaixoak, sufrimendua hori besterik ez du egin, jarrera berdinekin jarraitu ezgero, traidoreak merezi duten zigo-

rra jasango dute eta.

Demokrazia izango da gaur bizi duguna, pake proposamen bat zabaltzeagatik atxilotzen gaituztenean.

Gu faxista, herri bezela zor zaizkigun eskubideak eskaltzeagatik.

Euskal Herriaren nahia, denon artean eta aukera berdinekin adierazitakoa etsaiak errespetatzen ezan eskaltzeagatik. Gezurra eta manipulazioa ere ordaintzen dira.

Beasaingo eta Ordiziako alkateei gogoratu beharko zaie beraien alderdiko buru batzuk egindako adierazpenak eta bere garaian prentsan agertutakoak: Xabier Arza-luzek, 90-8-5ean esaten zuen, "la dispersión es un aspecto más de la batalla entre ETA y el gobierno, es un arma política"; Jose Antonio Ardanazak, 91-9-1ean, "lo más adecuado a los intereses de los propios presos etarras

es que sigan como están, Instituciones Penitenciarias debe mantenerse en la misma actitud que ha adoptado hasta ahora"; Iñaki Anasagastik, 92-7-8an, "siempre hemos apoyado la política de dispersión, que está dando resultados, aunque no es una política que tenga éxitos llamativos de la noche a la mañana; es una gota de agua que hay que seguir trabajando con ella y creemos que la política del gobierno es correcta"; Emilio Olabarriak, 93-10-18an, "la política de dispersión sigue siendo pertinente".

Argi dago beraz, beldurra ez, baina badaezpada Espainia eta Frantziaren babespean, eta zazpi mila zipayoan laguntzarekin. Eta lotsa beraiek ematen dutena.

*Eugenio Irastorza
(Ordiziar preso politikoa,
Almerian hurbilduta)*



☎ 88 55 00 ORDIZIA



AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO



**GENERALI
Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**

Argazkiak honen edizioan laguntzen

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa
fundación*

ERREZETA



Gorka Salaberria
Rubiorena jatetxea
Beasain

KRABAROKA PISTO ETA PANADERA PATATEKIN

Osagaiak: (pertsona baten-
tzat) 500 gramoko krabaro-
ka, gurin apur bat, patata bat,
2 tipula, 2 piper berde, kala-
bazin bat, gatza eta oliba-
olioa.

Lehenik **pistoa** egiteko,
kalabazina, tipula erdia eta
piper berde bat, zatituak, oli-
ba-oliotan egin.

Patata panadera eran
egiteko, zentimetro bateko
lodieran zeharka ebakiko di-
tugu eta piper berde batekin
eta beste tipula erdiarekin,
oliba-oliotan egin poliki-po-
liki.

Azkenik, **kraba** xerratzen
dugu eta gatzatu ondoren, la-
bean sartuko dugu, labeko
bandexa gurinez igurtzi eta
gero, 180 °C-tan 6 minutu
inguruz eduki.

Plateran jartzeko unean,
azpian pistoa eta patatak ipi-
ni eta gaineen kraba. Labeko
bandexan dagoen zukua gai-
nean bota.



Pello Barandiaran
Gertu aholkularitza

1998. urtean Europako Mo-
neta-Batasunean zein her-
rialdek parte hartuko duten
erabakiko da, ondoko eriz-
pideak kontutan hartuz:
moneta egonkortasuna; in-
flazioa; luzerako interes ta-
sa; defizit publikoa; eta zor
publikoa. Honekin, euroa
erabiliko duten herrialdeak
zein izango diren finkatuta
geratuko da.

Euroa 1999. urtean jaio-
ko da baina, 2002. urterarte
ez du bide legalik izango.

1999 eta 2002 artean,
Europako Banku Zentrala
eta Estatu desberdinetako
banku zentral nahiz enpresa
handienak Eurotan lanean
hasiko badira ere, ez da bi-
lete eta moneta beza-
la erabiliko.

2002. urtetik au-
rrera estatu kideetako
monetak baliogabe
geratuko dira sei hi-
labetetako elkarbizit-
za baten ondoren, uz-
tailaren 1 etik aurre-
ra, euroak guztiz or-
dezkatuko dituelarik.

AHOLKUA

Zein eragin izango du Euroak gure eguneroko bizitzan?

Honek zein eragin izango ditu?

● 2002. urteko uztailetik
aurrera, euroak **pezeta or-
dezkatuko du**, ordurarte
geure inbertsioak eurotan
nahiz pezetatan edukitzeko
aukera izango badugu ere,
data horretan pezeta balio-
gabe geratuko denez dena
eurotara pasatu beharko du-
gu.

● **Bizitza garestitu**
egingo al da? Ez luke ho-
rrela izan behar baina euro-
tara aldatzean prezioen bo-
robilketarako har daitekeen
joerak hori bultzatzen lezake.

● **Soldatak noiztik eu-
rotan?** 1999tik aurrera en-
trepresa handiak eurotan
lan egingo badute ere, 2002.
urterarte ez dira soldatak
eurotan kobratuko. Igoerari
dagokionez, inflazio tasa
txikiagoak espero direnez,
ez da hain haundia izango.

● Zer gertatuko da **kon-
tratu, aseguru, hipoteka...**
ekin? Hitzarmenen jarrai-

penaren aldekoak dira Eu-
ropar Batasuneko estatu
gehienak, kontu handia izan
beharko dugu ordea, batzuk
bezeroei etekina ateratzen
saia baitaitezke.

● **Merkatari eta entre-
presek** galerak izango al di-
tuzte euroa dela eta? Epe la-
burrera aldaketa informati-
koak, transizio garaian pre-
zio bikoitzekin lan egin be-
harra, moldaketa arazoak...
izango badituzte ere, hauek
aldi baterakoak izango dira.
Luzaroan, moneta-bakarrak
interes-tasen jaitziera ekar
lezake, honek, eragin posi-
tiboa izango lukeelarik
merkatari eta entrepresen-
zat.

● Zer gertatuko da
banketxeek **dibisekin** ater-
ratzen dituzten etekinekin?
Moneta bakarrarekin hauek
desagertu egingo dira. Bes-
te komixioren bat sortuko
da agian?

Dudarik gabe XXI. gi-
zaldiaren atarian gaude eta
moneta iraultza
baten aurrean.
Transizio epe ho-
netan galdera uga-
ri sortuko zaizkigu
eta erantzunak
moneta batasuna
errealitate bilaka-
tuz doan heinean
etorriko zaizkigu.



EDARITEGIA

Jar

KAFETEGIA

Festa onak pasa!

Nafarroa Etorbidea, 27

88 86 81

BEASAIN



✓ Ileapaindegia
✓ Edergintza
✓ Solariuma
itxura aldaketa

Nafarroa Etorbidea, 37

88 02 97

BEASAIN

ZINEA

LEGORRETA:

'Doce monos', maiatzak 12, Herri Zineman, 20:30etan.

'Quiz show', maiatzak 19, 20:30etan, Herri Zineman.



ORDIZIA:

'Michael Collins'. Ostirala 9: 22:15; larunbata 10: 19:30 - 22:15; igandea 11: 19:30 - 22:15; astelehena 12: 19:30.

'Eddie'. Igandea 11: 17:00.

DANTZA

BEASAIN:

Maiatzak 16, Maiatza Dantzan: 'Nats Nus' taldeak Alemanian aurkeztutako dantza garaikidearen lehen aurkezpena Euskal Herrian. 23:00etan, Usurbe Antzokian. Sarrera: 700 pezeta.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Maiatzak 9, Lopez de Arriortuaren hitzaldia Goieriko enpresetako garenteei zuzendua. Usurbe Antzokian, 12:00etan.

LAZKAO:

Maiatzak 12, 'Zer ahoratzen dugu? elikagaien osaketa' hitzaldia Ane Miren Uranga eta Arantza Lorenzoren eskutik, Maizpide euskaltegian, 15:00etan.

Maiatzak 15, 'Kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak' hitzaldia, Ane Miren Uranga eta Arantza Lorenzoren eskutik, 15:00etan, Maizpide euskaltegian.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Maiatzaren 23tik aurrera, Itsasuntzien erakusketa, Gipuzkoako Ozeanografia Elkartaren eskutik, Erakusketa aretoan.

Maiatzaren 16ra arte, Kubako, Santa Clara arte plastikoen eskolako ikasleek erakusketa, Aterpe tabernan.



ORDIZIA:

Maiatzaren 2tik 16ra, Juan Luis Orbearen argazki erakusketa, Barrenan.

Maiatzaren 6tik 16ra, 'El placer de leer' argazki erakusketa, Barrenan.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 88 72 21

Oriamendi, 3 - 2. ezk.

BEASAIN

OSKARBI OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44

ORDIZIA

ARRANO TABERNA

Pintxo eta ogitartekoak



Jaie-
tan

ere preso eta
iheslariak gogoan

Nagusia, 12

BEASAIN

GOISYSYSTEM

Informatika aplikazioak



- ✖ Ordenadore salmenta
- ✖ Konponketa
- ✖ Informatika ikastaroak

Joan Iturralde, 1

☎ 88 79 14 - 16 04 01

BEASAIN

MUSIKA

BEASAIN:

Maiatzak 16, Etsaiak eta Nuevo Catecismo Catolico, Eskisabel-eneko plazan, 23:00etan.

Maiatzak 23, Musika Eskolak antolatutako audizioa, ikastetxei zuzendua, Usurbe Antzokian, 15:00etan.

ORDIZIA:

Maiatzak 16, Kafe-

kontzertua: Jazza. Daniel P. Amboage (gitarra) eta Gonzalo Tejada (kontrabajua), Barrenan, 22:30etan.

MENDI IRTEERAK


Ordiziako mendizaleak:

Maiatzak 11, Albi-Beloki-Tuturre-Betelu.

Maiatzak 17, San Lorenzo-Sierra de la Demanda.

Hitzaldi-filminak

Ordiziako Baga-Biga kulturgaiak dendak eta Gazte Asanbladak antolaturik, Juan Luis Zabala idazleak 'Galdu arte' liburuari buruzko hitzaldia emango du. Azkoitiko Gaztetxearen sorreran oinarritzen da liburua eta garai hartako diapositibak eskainiko dira. Ordiziako Gaztetxeko kide ohi batek ere bere esperientziak kontatuko ditu. Maiatzaren 15ean izango da, 20:00etan, Baga-Bigaren lokalean.



GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia).

10-11: Cuesta (Nafarroa Etorbidea, 39-Beasain).

17-18: Laurnaga (Nagusia, 40- Ordizia).

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Baserri bat alokatuko genuke, ardiak jartzeko. 887077.

☐ 75 m² -ko lokal komertziala salgai edo errentan Beasaingo Oriamendi kalean. 88 00 65.

☐ Pisu ederra alokatzen da Legorretan. Dei ezazue telefono honetara: 80 60 38.

Salerosketak:

☐ Opel Corsa, SS-U matrikuladuna salgai. 88 18 02.

☐ Solariuma salgai, berria dago. 88 26 31. Arratsaldeztu, 2.30etatik 7.30etara.

☐ Mahaia, 6 eserleku, 2 altzari eta lanpara salgai. Antigualekoak eta egoera onean. 88 48 22.

☐ Bi bigai limusin 13 eta 9 hilabetekoak saltzen dira bere karta genealogikoarekin. 80 04 90.

☐ Macintosh Classic ordenagailua eta inpresora salgai. Tfnoa: 36 03 89.

Bestelakoak

☐ Zure ezkontza eguna ahaztezina izatea nahi baduzu, deitu Loinatz Kamara abesbatzari. 88 99 55.

Saldu, erosi, eskaini... nahi baduzu, hau da zure txokoa.

Iragar zaitez GOIERRITARRA

124 p.k. ORDIZIA

☎ 88 96 12 - Faxes: 88 27 19

PEACE

ZURE BAKERO DENDA

Levi's
Bonaventure
Replay
Guess
Liberto

Korreo, 25 | Garibai, 6 | Nagusia, 42
TOLOSA | DONOSTIA | BEASAIN

**LOINATZ
KAMARA
ABESBATZA**

Zure ezkontza ahaztezina izatea nahi baduzu, deitu.



☎ 88 99 55

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Unibertsitarioak
- ✓ Oposaketak
- ✓ Kurtsoak

Maila eta arlo guztiak
Zentru homologatua

☎ 16 01 20 Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN



**Nagusia, 13
BEASAIN**

*Poltsak
Oinetakoak
Bidaia artikulak*

**Sta. Maria, 15
ORDIZIA**

Alkartasuna lizeoa: Jose Inazio Arrizabalagaren 'egiak'

*Gezurretan dabilenak
gezurrez kutsatzen ditu denak*

113. alean zuk izenpetuta azaldutakoari erantzutera nator. Idazkiko "literatur estilo" hori oso ezaguna dut, baina ez da zurea, Beasainen Ikastola likidatzeko mugimenduko aitzindarietako batena baizik. Zu ere ordea, aitzindari horien bidailagun zabiltza eta hona erantzuna demontzat.

Hasteko, Ikastolak 32 urte ditu, baina Kooperatibak ez 23 baino gehiago. Alkartasuna Lizeoa Ikastola izan da baina jada ez da. Berehala Administrazioaren Eskola izango da. Beasaingo Ikastola, herri honetako Ikastola bakarra da eta erregistratuta dagoenez, ez erabili zuena ez den izenik! Izena ere lapurtu nahian?

Trapuak etxean garbitzea, oso egokia da, baina indarrean zeuden Estatutuek eskatua bete gabe, 1993-05-20ko bozketaren emaitza nahi bezala erabiltzea, trapu zikina ezezik iruzurrik handiena izan da. Etxean garbitzen ahalegindu arren (hilabetean bi ohartarazpen orduko Batzorde Errektorari bidegabekeria adieraziz), Ikastola desagertarazteko mugimenduko aitzindariak eta beren bidaideok, gezurraren bidetik jo eta orduko Hezkuntza Saileko Arduradun Politikoen konplizitate interesatuarekin, Beasaingo azken urteotako lapurretari handiena estali nahi izan zenuten betirako. Trapu hori etxean garbitu ezina zenez, kanpoan garbitzen ahalegintzea beste erremediorik ez dugu izan. Baina 4 urte igaro dira eta garbitu behar zutenek, oraindik ere ez dute garbitu eta luzaroan ustel zedin nahiago izan dute. Baina zuek nahi bezala, Ikastola zuzenean Administrazioaren Eskola ezin bihurtu izanak, Ikastolaren eustaileroak arrazoirik badugula erakutsi du.

1994ko kontuetan gauza asko ezkutatu dituzu. Batzordeko batzuek bidaide ez izateagatik, Zuzendaria dimititu egin zuen. Lehendakariak, Zuzendaritzan jarraitzea eskatu, baina hark, iraileko lehen egunetan, "ez berak eta ez Lizeoko beste inork ez zuela Zuzendaritzarik hartuko" erantzun zion. Barruan inor prest ez

zenez, batzordearen erdiak (Lehendakariaren adostasunarekin) ezinbestekoa izan zuen Zuzendaria kanpotik ekartzea. "Sasi-zuzendari bat inposatu" esamoldea oso ezaguna dut aipatutako "literatur estiloan", baina erabakia zuzena izan zen. Esan ez duzue zera da, Zuzendari hari, zuek eragindako kontu-blokeo bat zela bide, ez zitziola ordaindu eta oraindik ere Lizeoak zor diola.

Aitzindariak, Ikastola-zalerik ezin zuten jasan Lizeoan. Batzar Nagusia ez egiteko asmorik ez zuen inork. Zuek tratatu nahi zenuen puntu batek sortu zuen eztabaida. Zuen 6 kidek, beste seiak botatzeko puntua sartu nahi zuten (egokia ezta?) eta puntu hori ez zuten onartu beste seiak. Horrela, iruzur larriren bat tarteko, auzitegira jo, gai-zerrenda inposatu (hori bai inposaketa!) eta bedekazio politikoez lagunduta, Epai-leak, Batzarra, puntu hura barne zuela, eginaraztea lortu zenuten 1994-12-03an. Han interes eta helburu bakarra izan zen: 6 partaide Ikastolazaleak Batzordetik kanporatzea. Horren erantzuleetako zara zu zeu ere Jose Inazio eta eragiketa zikin hari esker bihurtu zinen Batzordeko Lehendakari. 1996ko ekainean ere beste bat egin zenuten (Estatutuak bete gabe Estatutuen aldaketa ontzat eman). Biak inpugnatu ziren, baina zoritxarrez, Justiziak ez du behar zuenik eman eta gaia usteltzen utzi du luzaro.

Eta ahaztu al zaizu, zuk zeuk 1994-01-15eko batzarreko akta Kooperatiben Erregistroan gezurra aitortuz handik 15-16 hilabetera ontzat eman eta erregistratua duzula? Hura onetsi behar zuten 2 bazkideetako bat ni nintzen. Ongi egina ez zegoelako eta gauza asko estaliak edo oker jarriak zeudelako, hainbat orritako zuzenketak aurkeztu nituen. Ez zitzaizkidan onartu eta ez nuen sinatu, baina zuk, nik ere onartu nuela adieraziz ziurtatu zenuen. Bat gehiago Jose Inazio, baina nik ez daukat ahaztuta.

1996ko bereizketa, 3 urteko gezurrek, faltsukeriek, Justiziariak ezak, Alkartasuna Lizeoa Ikastolen Elkartetik ateratzeak (zu Lehendakari jarri eta hilabete bere-

an egin zenuen lehen ekintzeta-koa) eta funtzionamenduan Ikastola-molde guztiak galdu izateak eragin zuen. Kopuruetan ere gezurra diozu. Geurea Ikastolak 180 ikaslelik gora ditu eta Alkartasunatik etorriak gehien-gehienak, baina tira, badira berriak ere eta horrek are gehiago poztzen gaitu, jendea hasi baita Beasaingo Ikastola eta orain letreroetan izen hori erantsi arren jada Ikastola ez dena bereizten.

1996ko irailekoa ere ez da ahaztekoa. Loinazko San Martin plazan libre zenituzten ikasgelak eskatu, ematea agindu, hustu eta azken egunean giltzak eman ordez, ostera mahai batzuek sartu eta 20 ikasle jarri okupazio hutsa egiteko. Zuk zeuk esanaren arabera, hori ere printzipio-kontua izan zen zuentzat. Eta gu bitartean Senperera geure patrikatik ongi ordainduta. Hori da zuen egia Jose Inazio!

Gero, 1996-97 ikasturtean, zuek beti luzamenduetan. Ekimena beti geurea izan da eta ildo horretan, 1996-12-31rako prestatu genuen bazkideen sinadura-bilketan, 500 bazkideen sinadurak bildu ziren eskaera zehatza eginez, baina zuek, Eguberrietan "gogoeta egiteko denbora behar zenuela" esanez ibili zineten ezer egin gabe. Zerrenda ezaguna da, hori zuk badakizu eta balio izatekotan bakarrik erabiliko da.

Gure proiektuaren gainfinantzaketa nahi dugula diozu. Gezurria! Zeuok daukazue Hiruko Gobernuak berak egoerak dirauen arte onetsitako gainfinantzaketarik handiena eta oraindik Administrazioetik sosik jaso ez dugunoi hori bota! Gainera, gogoratu egin behar ote dizuet 1996an Azpeitiko obrei jarritako inpugnazioa altxatzean Administrazioetik urteko zorrak berdintzeko, horren eta haren izenean jasotako 56 milioiko kopurua? Nork du hemen gainfinantzaketa?

Geurea Ikastola K.E.K, erantzun bat jasotzeko, eta ez Justiziaz dagokiona, astebeteko ekintzak plazan egin eta ikasgela hutsan sartzeraino iritsi behar izan du. Orduan, Administrazioak (benetako nagusiak) emandako urratsarekin, erantzutera mugia-

razi zaituztete (zuek ez baituzue ezer proposatu, hark akuiluarekin ziztatzean zerbait erantzun baidzik).

Konponketa heltzeaz dagoela dirudiela diozu. Bai, baina nolahalakoa, ez justiziazkoa! Administrazioak, zuen hasierako jokaldiaz inbentarioan sartutakoa, bere egiten du oso-osorik. Hondarretatik, zerbait (40 milioi esaten da) guretzat izan liteke. Gainera, horretarako ere, kopuru hori baino handiagoko inbertsioak eskatu dizkiozue trukean Administrazioari. Hor ere negozio bila. Baina, zer da hori Lizeoak balio duenarentzat eta guri handik dagokigunarentzat? Baduzue hor baloraziorik mahaira atera gabe. Justiziaz, gutxienez 200 milioiez hitz egin beharko genuke eta hori, gu ne nagusiaren abantailak albora utzita. Hori, nolahalako konponketa izango da, tartean Beasaingo Ikastolaren proiektu-jarraipena jokoan dagoelako eta horrek berez, beste balore batzuek baino gehiago balio duelako, baina ez banaketa zuzena delako. Gauzak garbi. Gauzei duten izena emanez, txantajearen kontura gauzatu den lapurretara, ezin estalia da eta nik behintzat bizi naizen arte ez dut ahaztuko. Bestalde, horrelakoak, salatu bai egiten dira (ez epaitegietan, mota horretakoak ez baitira sartzen), baina lapurrak ez dira inoiz zigortzen.

Gezurriak berriz, lasai, gizar-teak berak epaitzen ditu lehenik eta historiak gero. Gaurko goieritarrek eta Euskal Herriarrek nahiz atzetik iristen direnek, zu, ni eta gainerakoak epaituko gaituzte eta nik ez diot epai hori inolako beldurrik. Ni ez naiz aldatu, nik ez dut proiekturik trukatu. Ni Ikastolan nengoen, norbaitzuk Ikastola hori kendu egin nahi izan didate, ez dut onartu eta berriz ere Ikastolan nago, Ikastola eraikitzen. Berdin esan al deza-kezu?

Dena dela, orainak *affaire* hau gehiegi argitzen ez badu, ziur egon geroak hobeto argituko duela, egunotan Gernikakoa 1937an ez bezala argitu den bezalaxe. Horixe itxaro dut.

Andoni Sarriegi Eskisabel

TXANDAKA

Idazleak sortu, idazleak uxatu

Orain dela gutxi kaleratu da Joan Mari Torrealdairen *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*, liburu mardul eta euskaltzale guztion etxean egon beharrekoa. Beste mila kontu jakingarriren artean, goierritarroi zuzenean dagokigun bat aukeratu dut bertatik hona ekartzeko.

Goierrri da, Donostialdearen ondoren, idazle gehien ematen duen eskualdea. Gaur egungo idazle guztien % 11,3 jaio da gure artean, 32 guztira; bertan bizi garenak ordea, askoz gutxiago gara: % 4,2, 12 lagun, gelditu edo bertakotu direnak. Hiriburuetatik urruti dauden beste bailara batzuek ere galerak dituzte, baina bakar batek ere ez du guk adina. Orain idazleen artean egin den inkesta honen pareko bat egingo balitz euskarazko irakasle eta kazetariekin, adibidez, seguru nago emaitzak antzekoak liratekeela.

Zer ondorio atera hemendik? Batetik, misiolari moduan ibiltzea tokatu zaigula, Euskal Herria berreuskalduntzeko bidean; horrekin batera, lan-aukerak ere sortu zaizkio bat baino gehiagori, euskalgintzari eskerrak. Beste alde batetik, ordea, agerian geratzen da jende ikasi samarrak, oro har, nahiago duela hemendik kanpo alde egin. Baserri usaina ona izan da, itxuraz, euskal intelektualak sortzeko, baina ez bertan gelditzeko; eta horretan badu zerikusia gure eskasiak, kulturgintzako talde, eskaintza eta azpiegituretan.

Xabier Mendiquiren Elizegi



Jaietan antolatzen diren ekintzetan parte hartzen al duzu?



Eneko Guerrero
20 urte, ikaslea
legorretarra

Normalean bai. Irrintzi eta paella lehiaketetan eta mozzorro egunean parte hartzen dut. Legorretan jaiak egunez hasten ditugu.

Oihana Zunzunegi
21 urte, ikaslea
legorretarra

Bai, dexente. Antolakuntzan gutxi kolaboratzen dugu, baina antolatutakotan parte hartzen dugu. Oso festa herrikoiak dira Legorretakoak, kanpotik jende gutxi etortzen da. Aurten arte play-backean parte hartu izan dut.



Joseba Ibarguren
23 urte, ikaslea
beasaindarra

Beste askok baino gehiago, agian gehiegi. Txistularia naiz eta goizeko 9etan egunero kalejira jotzen dugu. Agian beranduago jarri behar lituzkete kalejira horiek, gauean lasaiago ibiltzeko.

Oinetakoak

Oiarbide


Laskurain, 12 San Inazio, 14
☎ 65 37 86 ☎ 16 04 34
TOLOSA BEASAIN

BARANDIARAN Taberna

- Eguneroko bazkariak
- Afariak
- Baserriko oilaskoak

Nagusia, 3
BEASAIN

☎ 88 92 10



- ✓ Pinturak
- Dekorazioa
- Industrialak
- ✓ Tresnak
- ✓ Makineria

Tfnoa. eta faxa: 88 65 63
Oriamendi, 32 BEASAIN



Ordizian manifestazioa

Herrian izandako erasoak salatzeko eta bide batez, zaurituei elkartasuna adierazteko, manifestazioa izan zen apirilaren 26an Ordizian. Manifestazio ixila izan zen eta 'erasoa al da zuen alternatiba' leloa eraman zuen pankartak. EAJ, EA, PSE-EE, PP eta IU-EBk deitu zuten manifestazioa. Beasaingo, Lazkaoko eta Tolosako alkateek bertan parte hartu zuten. Ekitaldiaren amaieran Juanbi Erauskin Ordiziako alkatea harrituta gelditu zen manifestazioan parte hartu zuen jende kopuru handiagatik.



Maiatzak 1

Goierri eta Tolosaldeko LAB sindikatuak Ordiziatik Beasain bitarteko manifestazioarekin ospatu zuen maiatzaren 1a.

Insausti harria

Legorretan, Insausti jatetxearen ondoan, usadio zaharreko harria aurkitu dute. 2 heldulekuko zilindrikoa da, 100 bat kilokoa, heltzeko zaila. Joan zen asteazkenean aurkeztu zuten komunikabideen aurrean. Harri honekin egingo den lehenengo txapelketa, bihar, maiatzak 10, egingo da, Legorretako enparantzan, arratsaldeko 7.30etan. 'Insausti Harria' bezala bataiatu dute.

Irizar

Autobus kooperatibak 3.000 milioi pezeta inbertituko ditu Ormaiztegioko lantokia handitzeko. 150 lanpostu berri sortuko dira. Gaur egun 6 autobus egiten dituzte egunean, eta kopuru hori bikoiztu egin nahi dute. 1998ko abuzturako obrak amaituta egotea espero da. Marokko eta Txinan enpresak baditu Irizarrek, eta India eta Brasileran iristea ere aztertzen ari da.

Dulce Maria Loinaz

Apirilaren 27an, 95 urte zituela hil zen Dulce Maria Loinaz poeta kubatarra. Beasaindar jatorrikoa zen. Behin eta berriz esan zuen "kubatarra bezain beasaindarra sentitzen" zela. 1947 eta 1953. urteetan bisitatu zuen Beasain. 'Beasain Jaietan' urtekarian hainbat

lan argitaratu izan zituen. 1992an Cervantes saria jaso zuen Madrilan.

Ezkioko agerpenak

1931n Ezkion izandako agerpenak biltzen dituen William A. Christian antropologoaren liburuaren aurkezpena izango da gaur, maiatzak 9, Ezkio-Itsasoko Kultur Etxean (Santa Lutzi auzoan), arratsaldeko 7.00etan. Idazlea bera bertan izango da. Larunbatean, berriz, 'Ezkioko agerpenak' hitzaldia emango du idazleak berak, Zumarragako Udaletxean, 7:30etan.

Laguntasuna Errondalla

Parisen izan da Ordiziako Laguntasuna Errondalla. Lehenengo aldia da Euskal Herriatik atera direla. Parisko kaleak kantuz alaituz ibili dira: Notre Dame, auzo latinoa eta Montmatre.



J. MUJIK
Harategia

Nafarroa Etorb. 31 ☎ 88 04 88
BEASAIN

Nagusia, 16 ☎ 88 18 32
Gipuzkoa, z/g ☎ 88 08 78
Etxea ☎ 16 06 02

ORDIZIA

TOYOTA
GOIERRI AUTOAK

Salmenta instalazio berria
ORDIZIAN,
lehen RENAULT zenean.

Konponketa Mekanikoak
eta Karrozategia

— Marka guztientzat —

☎ 88 20 05 - 88 10 73

MG
UJAR

Iluminazio denda
ireki berria!

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 88 86 88

☎ mugikorrak: 908-576580

eta 908-000831

ORDIZIA

Ekaitz Goikoetxea

3 sari lortu berriak ditu beasaindarrak. Bata, Hernaniko Udal Euskara-batzordeak antolatutako 'Joxe Legarreta' bertso-paper lehiaketan, gazteen artean (14-18 urte bitartean) Igo saria. Bestea, Euskal Eskola Publikoaren festa ospakizuneko bertso-paper sariketan Igo saria eta ipuinetan 2.a.

Aitor Garmendia

Alentejoko itzulia irabazi zuen Aitor Garmendia txirrindulari itsasondoarrak. Azkeneko etapako erlojuz aurkakoa irabazi zuen, orduko 48.090 kilometro eginez.

Bitoriano Garmendia

Apirilaren 27an, korrika apustua izan zen Gaintzan. Migel Mari Berekoetxeak 10 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuen eta Bitoriano Garmendiak 6koa. 51 urte ditu Bitoriano, gaintzarra da, Ibarritza baserrikoa. Migel Mari, bere koinatua, 29 urteko berrobitarra da, zenbait maratoni-erdi eginikoa. Zaharrak irabazi zuen, 25 minutuko aldearekin.



ertaroko azoka Ordizian

Gaur, maiatzak 9, arratsaldeko 4.30etan inauguratuko da Ertaroko azoka Ordizian. Enparantza Nagusia eta inguruko kaleak denboran atzera egin eta Ertaroan murgilduko gara. Igandera bitartean iraungo du giroak. Larunbatean egun osoan egongo da zabalik, eta igandean goizez, 10etatik ordu bietara.

Nafarroako Elikagai artisauen Elkarrekin antolatzen du Ertaroko azoka. Nekazaritzako elikadura artisau produktuak sustatzeko sortu zen ekimen hau 1994an. Gaztak, sagardoa, ahatekiak, eztia, pastak, zapatak, larruzko produktuak, lora-

lehorrak, egur-tailak... izango dira salgai. Guztira 60 postu. Zapelatzak eta arkulariak ere izango dira.

Kaleak ertaroko giroan murgilduko dira: pregoiarekin hasi eta antzerkia, malabareak, musika, saltibankiak eta magoak ikusgai izango dira. Dekorazioa ere aproposa: zutoihalak, ezkutuak eta garaia dagozkion apaingarriak.

Txanpon berezia ere badu azokak. % 10eko beherapena izango dute txanpon hori erabiltzen dutenek.

Iaz abuztuan egin zen Ertaroko lehenengo azoka Ordizian. Aurten bi berrikuntza izango dira gutxienez: Ordi-

ziako merkatariek antolatuta, ertaroko afaria izango da larunbatean, gaueko 9.30etan, Enparantza Nagusian. Garaiak eskatzen duen eran jantzita edo apaingintza joatea gomendatzen da, ertaroko erara afaldu ahal izateko. Platerik ez da izango eta baxerak ertarokoak. Menua: salda, oilaskoa, fruta, ardoa, ura eta likoreak. Prezioa: 1.200 pezeta. Txartelak tabernetan hauetan daude salgai: Amonane, Kixka, Koioite, Olano, Martinez, Pias, Lirain eta Sarrin. Afalondoren, egunean zerhar izandako ikuskizunak (malabaristak...) izango dira.

Lazkaomendiko Alarpe zalditegiari ere azokan parte hartzeko gonbitea luzatu dio Ordiziako Udalak. Zaldien desfilea egingo dute. Erregea, erregina eta 8 soldadu, zaldien gainean ibiliko dira. Guztiak, errege, erregin, soldaduak eta zaldiak beraien ere, ertaroan bezala apaingintza joango dira.

Aldizkari honetako 12. orrialdean duzuen zapaigile ertaroko azokan izango dugu.



ERRETEGIA

Kale Nagusia, 7
© 88 03 19
BEASAIN

JOSUNE & KLAUDE
 ileapaindegia & edergintza

*Edergintza eta ileapaindegia
 tratamendu guztiak*


Iturtxo, 5 ☎ 16 22 56 ORDIZIA



GALDOS

- Egurrezko zoruak
- Mokekak
- Sintasolak
- Pintura eta barnizatuak

LENZERIA - LURRINDEGIA
 Igartza Oleta, 12 ☎ 88 26 89
BEASAIN



XENKEGI

ETXE-AROZKINTZA

Diseinuak neurritan
Larunbat arratsaldean irekita

Erakusketako ☎ eta faxa: 161606 - ☎ mugikorra: 908 863591
Senpere Merkatalgunea, 38 BEASAIN

Sukaldeak
Ateak
Zoruak

Xabier Iturrioz oinetakoak eskuz eginez

Xabier Iturrioz legorretarrak etxekoan tradizioari segitu dio: aita zapatagilea, aitona ere bai, osabaren bat edo beste berdin... Gasteizko alde zaharrean, Herreria kalean, zapateria zuen Xabierrek, oinetakoak konpontzen zituen, eta sandaliak egin ere bai. Horrela, piskanaka-piskanaka, bere bidea jorratzen hasi zen, zapata-orma batzuk erosi, botak egin... Beste lagun batekin egiten zuen lan. Iruñean Xabier bakarrik hasi zen, eta bakarrik ezin! Urte bete pasa eta M. Karmen heldu zen. M.Karmenek ez zuen zapatagintza ezagutzen, baina bazekien josten, eta orain ere horixe egiten du: larrua ebaki, josi, pegatu.

Txekorraren larrua

Zapatak eta botak egiteko txekorraren larrua Palentziatik ekartzen dute. Gernikatik, ordea, sandaliak egiteko. Bi larru-klase hauek marroiak dira, edo beltzak, baina bezeroak kolorea nahi du, eta larru tindatua ekartzen hasi dira, Zaragozako herri batetik: larru gorriak, berdeak, moreak, urdinak... Forroa ere erabiltzen dute, txerriarena batez ere. Larru ona erabiltzen du bikote honek: "garestiagoa da baina iraun gehiago egiten du, eta pro-



Asteburu honetan Ordizian izango den Ertaroko Azokara bere lana erakustera etorriko da Xabier.

duktu kimikorik gabe ondutakoa da. 'Quebracho' arbol azala xehe-xehe egin, eta horrekin ontzen dute larrua", esan digu Xabier Iturriozek.

Oinetakoen zola ere bi eratakoa dute. Bata ohikoa, gomazkoa, eta bestea, berziklatutako gurpilekin egindakoa. "Hau gogorra da bestearen aldean, iraun gehiago egiten du, baina erosoagoa bestea, beharbada. Jendeari grazia egiten dio berziklatuak, baina ez da erraza ohiturak aldatzea", esan digu Xabierrek. Gurpil erreziklatua azpitik josten dio larruari. Makinaz josten dute. Hasieran eskuz egiten zuten hori ere, eta oinetako bakoitzarekin ordu-erdiko lana!

Bien artean bost oinetako pare egiten dituzte egunean, "baina hamar egindako egunak ere badira",

M.Karmenek aldamenetik. Botak, sandaliak, zapatak... denak kontuan hartuta, 1.300 pare saltzen dituzte gutxi gora-behera urtean. Denden prezioan saldu ere. Eurak ere hasi ziren jeneroa dendei saltzen, baina negozio txarra zen: izerdi asko eta irabazi gutxi. Biek egiten dute dendari-lana ere. Gogorra da, baina errentagarria. Negozioan buru-belarri ari dira; aurretik, ordea, ikerketatxo bat egin zuen Xabierrek, ikastaro bat. Urtean zenbat saldu, zein salneurritan...

Bezera fidelak

Bezera fidelak dituzte, parrokiano gazte euskaldunak gehienak: "Beraz, diru gutxi dutenak", esan digu M.Karmenek. Denda kale estu batean dago: "hona datorrenak badaki zertara datorren", bota du legorretarrak. Hala ere, bezeroen erdia edo Iruñetik kanpo

egin gute, feriaz feri ibiliz. Adibidez, Arrasaten izen handia dute. Baina, jakina, feria asko asteburutan izaten da. Bestalde, Erdi Aroko Feria moduko bat egiten da leku askotan, saltzaileak garai hartako jantziekin jazen dira, eta hor ere izan dira. Ordizian, esate batera. Gero bada Euskal Herri guztiko artisauak biltzen dituen elkarte bat, 'Arbaso' izeneko.

Asti piskat hartzen dute-nean, mendiko botak ere egin nahi dituzte: "oraingo botak goma gastatutakoan zaborretara... Lehen ez, azken zola hondatzen zenean, hura beroarekin kendu, eta beste bat jarri egiten zen. Baina negua joan da, udaberrian sandaliek hasi beharko dugu".

Era askotako modeloak dituzte hauek: sandalia batzuk 'Sahara' modelekoak dira, beste batzuk 'Gazte-txe', eta abar. Sahara aipatu dugu. Izan ere, Saharara izan dira RASDe koei laguntzen. Oinetakoak egiteko tailer bat omen dago han tresneria guztiarekin, eta hara joan dira, irakasle, Iruñeko udala lagun. Hilabete egin dute han, hemendik eramane dituzte larrua eta... Hala ere, denbora gutxi omen da tailerra martxan jartzeko.

HABE aldizkaria



Nafarroa Etorbidea, 9
88 94 82
BEASAIN

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua
Goierri 10 88 61 14 ORDIZIA

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33
BEASAIN

Baserriak hilzorian Beasainen

Garai batean, Beasainen, beste herrietan bezala, baserri asko zeuden. Hala ere, azken berrogeita hamar urteetan 142 baserri inguru desagertu egin dira, eta orain ez dago hainbeste baserri. Zer gertatu da?

Lehen Beasaingo hirigunea oso txikia zen, eta bertako biztanle gehienak nekazariak edo baserritarrak ziren. Beren bizimodua lurrarekin edo abereekin lotua zegoen. Horrek garbi erakusten du euskal gizartean baserria ez dela etxea, bizitokia soilik, baizik eta askoz gehiago, jendea bertatik bizi baitzen.

Beasainen, baserriak auzoetan sakabanatuak zeuden eta azken aldi honetan, bai auzoetan, bai hirigunean, desagertu egin dira. Dena dela, ez ditugu denak aipatuko. Hirigunean desagertutakoei buruz hitz egingo dugu bakarrik.

Nolabait kokatzeko, aipatuko ditugun baserriak, orain kiroldegian dagoen tokitik hasi eta Ordiziako mugarainoko tartean daudenak izango dira.



Beste batzuen artean eza-gunak ziren:

Piparrenea edo Gasparrenea baserria: errepide ondoan zegoen, Kateko gurutzean. Orain kiroldegia dago baserria zegoen tokian.

Zapatari: Indar parean zegoen, Igartzako multzo barruan. Orain ez dago ezer.

Zelata-Zahar: Contrucciones Azpeitia parean zegoen baserria. Gaur egun etxe bat dago han.

Zelata-Berri eta Neko-la: Zelata-Zahar atzean zeuden. Orain dela gutxi bota dituzte etxe berriak egiteko.

Tapia eta Barrendain:

Trenbidearen eraikuntzak desagertarazi zituen.

Urbi edo Ubi: Errepide ondoan zegoen. Orain oso etxe handia dago baserria zegoen tokian.

Zaldizurreta: Ibaiaren eta trenbidearen artean zegoen. Orain dela gutxi bota dute Osasun Etxea egiteko.

Aran-Berri, Aran-Txiki, Aran-Zaharra eta Arangoiti: denak eliza inguruan zeuden. Beasaingo garai bateko hirigunea zen.

Martorena: apaiz etxearen atzean zegoen.

Ezkia-Txiki: Ordiziaren mugan zegoen. Orain etxeak daude han.

Baserri horiek guztiak desagertzearen arrazoi nagusia hirigintza plana izan zen; herria handitzen ari zen eta lur libre izatea beharrezkoa zen etxeak eta beste eraikin batzuk egiteko. Hori dela eta, baserriak bota zituzten eta baserri horien lurretan gaurko etxeak eta kaleak eraiki zituzten.

Adibidez, gaur egun Ezkiaga auzoa dagoen lekuan, Ezkia-Txiki, Ezkia-Baso eta Mariarats baserriak desagertu ziren eta bertan etxeak, kaleak, eskola eta auzo osoa eraiki zuten.

Aipagarria da beste basu bat: Burugorrienea baserria desagertu zen tokian C.A.F. lantegia eraiki zuten, eta baserriaren jabea, lurren truke, lantegiko bazkide eta saltzaileetako bat izan omen zen.

Bukatzeko, esan behar dugu, momentu honetan ere badaudela desagertzeko zorian daudenak eta laster bota dituztenak; hala nola, Ezkia-Erdi.

*Beasaingo Udal Euskaltegiko
5. urratseko ikasleak
(Euskaldunon Egunkarian)*

UNANUE
UME JANTZIAK

Puerikultura

Nafarroa Etorbidea, 4
Tfnoa.: 88 71 94
BEASAIN



Proba itzazu
"Beasaingo
Martintxoak"

Nagusia, 11
88 82 37
BEASAIN



Nafarroa Etorbidea, 11 - Tel. 88 27 16

BEASAIN



ELECTRO ORIA

SALMENTA - ZERBITZU TEKNIKOA

Tfnoa. eta Faxe: 16 05 33
Nafarroa Etorb., 7 - BEASAIN



SATELITE BIDEZKO ANTENAK
TELEFONO MUGIKORRAK
AUTO-IRRATIAK
VIDEO-HIFI
TB-ak

ARTANE

- Liburuak, Aldizkariak...
- Eskulanak
- Eskolarako gaiak

Andra Mari, 1
16 16 72 BEASAIN

'Bazan garaya': Beasaingo lehenengo koadrila

Herriko jairik gehienetan 'Koadrila eguna' izaten da estimatuena. Urteko parrandarik handiena botatzen dute askok eta askok. Gaur egun koadrila ugari ateratzen da kalera koadrila egunean, blusa koloretsuak jantzita. Beasainen, lehenengo pausoa eman zuen koadrila, 'Bazan garaya' izan zen. 1952an atera zen lehenengo aldiz. Harrez gero etorri dira beste koadrilak. 'Bazan garaya'-ko kide izan ziren Seberiano Mujika eta Juan Agirrerekin izan gara orduko berri jakiteko asmoz.

Ordizian, esaterako, 1952. aurretik ateratzen ziren koadrilak herriko jaietan. Txikiteoan ibiltzen zen laguntalde bat animatu eta 1952an, Beasaingo kaleetan



Kabi Txiki tabernan ateratako argazkia, 1952an. Juan Agirrek utzi digu.

lehenengo koadrila ikusi zen. 'Bazan garaya' izen jarri zioten, Mozok asmatu omen zuen izena. Garai hartan, astearteetan ospatzen zen koadrila eguna, lantegietan egun hura ematen baizioten jai.

Janzkera aproposa egin zuten: apreta txuriak soka gorriekin (hurrengo urteetan abarkak), 'mil rayas' prakak, alkandora txuria, kuadro txuri-beltz txikiz osatutako blusa, zapi zuria eta txapela. Blusak bazuen bere ezaugarria: ezker aldean, Usurbe, baserria, dantzaria eta 'Bazan garaya'

hitzak idatzita zituen bordatua. Bastidak egin omen zituen eskuz. Seberiano Mujikak oraindik ere gordeta dauka blusa historiko hori. Egoera onean gainera.

Eguerdiko leian ateratzen ziren, goizeko ordu txikiak arte. Seberianok gogoratzen duenez, "urte batean leian atera eta goizaldeko 2ak arte dantzari ibili ginen. Hila-betean iraun zuten agujetek". Bazkaria eta afaria izaten zuten tartean. Gainerakoan, edaten, kantuan eta dantza eta saltoka ibiltzen ziren herriko tabernaz taberna. Goizetan ardo txuria

edaten zuten eta arratsaldean, beltza. Garagardoa ere bai. Herrian taberna ugari zegoen: besteak beste, Bodegoia, Agirre, Loinatz, Politena, Pako, Kasino, Gorrotxa, Usurbe kafetegia, Norte, Bideluze.

25-30 urte bitarteko gizonetzkoek osatzen zuten 'Bazan garaya'. Emakumeak tartean izatea, inori ez zitzaion burutik pasatzen. "Ez guri, ez familiari, ez eta neskei beraiei ere. Neskak gainera, garai hartan tabernan igandeetan bakarrik sartzen ziren, kafesnea hartzera", adierazi du Juan Agirrek.

Tren bereziak

Beasaina jende asko etortzen omen zen, bai igandeetan, bai jaietan. "Ordizian musika banda izaten zen, baina jendea Beasaina etortzen zen. Festetan ere jende ugari etortzen kanpotik. Renfek tren bereziak jartzen zituen. Musika 12etan bukatzen zen eta orduerdia izaten ziren trenak, Tolosa eta Zumarraga aldera".

KiTTo

EDARITEGIA

ZORIONKA
BEASAINDARROI!

Iturralde, 1
BEASAIN

KOIOTE
KOIOTE

"Mejunjea
dago"



Zaldizurreta Kalea
BEASAIN

Etxezarreta kalea
ORDIZIA

Diru faltarik ez zen garai hartan, koadrila honetan behintzat. "Dirua bazegoen. Guk biok esaterako, 11 orduz egiten genuen lana Indarren", dio Juanek.

Hori bai, gaur egun festen antzik ez omen zuten ordukoek. "Lehen festak bereziak izaten ziren. Orain gazteentzat, berdin da aste-burua edo festak izan, berdina izaten da".

5 bat urtez atera zen 'Bazan garaya' koadrila. Bigarren laguntaldea sortzerako pare bat urte pasatu omen ziren. 'Umore ona' izan zen atera zen bigarren koadrila hura. Juanitok gogoratzen duenez, dena den, koadrilak ugaritu zirenean sortzen zen iskanbila zela eta, suspentuta ere egon zen koadrila eguna. "Gu oso mutil jatorrak ginen, sanoak. Inoiz ez genuen arazorik izan", diote. Gaur egun, ez dira elkartzen. 1992an Udalak omenaldia egin zion 'Bazan garaya' koadrilari, orduan elkartu ziren azkeneko aldiz. "Bazkaria eman ziguten. Orduan emakumeekin joan ginen".

Santa Ageda bezperan ere parrandatxo egiten zu-



1953an Bodegoiaren aurrean 'Bazan Garaya' koadrilari ateratako argazkia, Karmen Arsuagak utzi digu.

Goian, ezkerretik eskubira: Juan Garmendia, Karmen Arsuaga (Bodegoiko etxe koandrea), Joxe Zabaleta, Anjel Fontetxa, Joxe Erguin, Rikardo Arbaiza, Pedro Kortaberria, Ernesto Ibisate eta Joakin Agirre.

Erdian: Seberiano Mujika eta Anakleto Andueza.

Makurtuta: Juanito Villaluenga, Pako Sarriegi, Pepe Erauskin, Koldo Urbieta (soinu-jolea), Julio Mata (panderojolea) eta Juan Agirre.

ten. Seberianok gogoratzen duenez, "behin bururatu zitzaigun Gabonetan kantatzen atera eta bertan ateratzen zen dirua Zaharren Egoitzarako ematea. Baina ez ziguten utzi, horretarako Frentes Juventudes zeudela

esanez". Iruñeko San Fermintara ere buelta bat baino gehiago emanak dira.

Bitxikeria bat gogoratu digu Seberianok. "San Martin estatuaren parean geunden, Lazkaoko dantza-

riekin. Auto holandar bat gelditu zen, protestanteak ziren. Argazkia atera ziguten. Zuzenbidea eskatu, Patxi Zabaletak eman eta argazkia bidali zioten".

L.A.

ETXEBE TABERNA



Festa onak pasa!

Zaldizurreta kalea
BEASAIN



Loinazko Festak ospatzen
Xuber zuekin!

Zaldizurreta z/g **BEASAIN**

ANDRA MARI TABERNA



Zuekin martxa!
Maiatzaren 10, 11, 12, 17, eta 18an
6etan irekiko dugu!!

Jaietako koadrilentzat menu bereziak
100 pertsonentzat jantokia
Bokatak, e.a. ere bai

ANDRA MARI, 5 88 69 13 BEASAIN

Maiatzak 9, ostirala:

- ✓ 17:00etan: Xake txapelketa, Gernika pasealekuan.
- ✓ 19:00etan: Erraldoi eta Kilikiak txistulariekin.
- ✓ 20:30etan: Loinatz, Loinatz Gaztea eta Loinatz Txiki abesbatzen kontzertua, Parrokian.
- ✓ 22:30etan: Mariren jai-tsiera, San Martin plazan.
- ✓ 23:00etan: Eskualdeko Erraldoi eta Kiliki taldea, Koskola txarangarekin. Gola antzerki taldea ere bai.
- ✓ 23:00etan: 'Ke rule' reggae musika taldearen kontzertua, Bideluze plazan.

Maiatzak 10, larunbata:

- ✓ 9:00etan: Txistularien Udal Bandaren goizeresia.
- ✓ 10:00etan: Meza Loinazko ermitan.
- ✓ 12:00etan: Umeen danborrada, Ezkiagatik hasita.
- ✓ 16:00etan: Eskuzko pilota-txapelketa, Kiroldegian.



- ✓ 17:00etan: Hiri-jokoa gaztetxoentzako, Joan Iturralde plazan.
- ✓ 17:30etan: Ludoteka, Joan Iturralde plazan.
- ✓ 18:00etan: Danborradako konpainien irteera.
- ✓ 19:00etan: Dantzaldia 'Paco Formoso'ren Pasarela orkestrarekin, San Martin plazan.
- ✓ 19:00etan: Koskola txarangaren irteera.
- ✓ 22:30etan: Helduen dan-

borrada. Gauerdian amaituko da, San Martin plazan.

- ✓ 00:30etan: Paco Formosoaren 'Mexi-gala' dantzaldia, San Martin plazan.
- ✓ 01:00etan: 'Ska-P' ska musika taldea, Bideluzen.

Maiatzak 11, igandea:

- ✓ 10:00etan: Kalejira Txistularien Udal-bandarekin.
- ✓ 10:00etan: XXVII. Loinazko San Martin Nazioarteko Xake-jokaldiak, Ezkiaga Auzo etxean.

- ✓ 11:00etan: Barea marrazki lehiaketa, Zubimuzun.

- ✓ 12:45etan: Soka-dantza, San Martin plazan.

- ✓ 13:00etan: Musika Banda, San Martin plazan.

- ✓ 18:30etan: Hortzmuga antzerki taldearen 'Ufo' ikuskizuna, Joan Iturralde plazan.

- ✓ 19:00etan: Herri kirolak, Barrendain plazan.

- ✓ 19:30etan: Nafarroako jotak, San Martin plazan.

- ✓ 23:00etan: Su artifizialak, Igartzako jauregiaren atzeko zelaian.

- ✓ 23:30etan: Gozategi, Bideluze plazan.

Maiatzak 12, astelehena:

- ✓ 8:00etan: Udaleko txistulari-bandaren goizeresia.

- ✓ 9:00etan: Prozesioa San Martin basilizara. Ondoren Meza. 11:00etan: Erromeria eta usariozko marraskiloak.

- ✓ 11:30etan: Laguntaldeen

EUSKO LABEL

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**



PELLO HARATEGIA

Jai egunak ondo igarotzeko
okel ona ezinbesteko

Mariaratz, 2

BEASAIN

MIRENTXU

LIBURUDENDA • OPARIAK • PAPERDENDA • FOTOKOPIAK • FAXA

Festak ondo pasa!

Kale Nagusia, 1

Nafarroa Etorbidea, 7

BEASAIN

☎ 88 14 57

☎ 88 04 55

LURRAZPIKO
JAIA !!



ARANA, 1

☎ 88 93 88

BEASAIN



**ILEAPAINDEGI
MISTOA**

Festa onak pasa!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-artea)

Tfnoa.: 16 11 05

BEASAIN

GOIERRI BODEGOIA

EGUNEROKO BAZKARI ETA AFARIAK

Nagusia, 18

☎ 88 00 00

BEASAIN

arteko futbol txapelketa, La Sallen.

- ✓ **11:30etan:** Umeentzat parkea, Urbialde plazan.
- ✓ **13:00etan:** Laguntaldean bilkura, Barrendain plazan.
- ✓ **19:30etan:** Egan Bidelu-zen. 23:30etan, berriro Egan.

Maiatzak 13, asteartea:

- ✓ **10:00etan:** Azoka berezia.
- ✓ **11:00etan:** Umeen dantzasoka, San Martin plazan.
- ✓ **12:00etan:** Josune eta Aitziber trikitilariak, San Martin plazan.
- ✓ **13:00etan:** S. Lizaso, A. Mendiluze, A. Egaña eta Ekaitz Goikoetxea bertsolariak, San Martin plazan.
- ✓ **17:00etan:** Umeentzako 'Euskal jokoak', Joan Iturralde plazan.
- ✓ **19:00etan:** Helduen dantzasoka, San Martin plazan.
- ✓ **19:30etan:** Bertsolariak trikitilariak, San Martin plazan.



Maiatzak 16, ostirala:

- ✓ **17:30etan:** Beasaingo Erraldoi eta Kilikien irteera.
- ✓ **18:30etan:** Kiki, Koko eta Moko pailazoak, Joan Iturralde plazan.
- ✓ **22:00etan:** Urrezko Barea ematea Beti-Bizi elkarteak.
- ✓ **23:00etan:** Rock kontzertua: Etsaiak eta Nuevo Catecismo Catolico, Eskisabel-eneko plazan.
- ✓ **23:00etan:** Maiatza Dantzan: 'Nats Nus' taldea, Usurbe Antzokian.

Maiatzak 17, larunbata:

- ✓ **10:00etan:** Txistularien Udal-ban-daren goizeresia.
- ✓ **10:00etan:** Plater tiraketa, Suministros Loinazen parean. 15:30etan ere bai.
- ✓ **10:00etan:** Erretiratuentzako Toka eta Igel lehiaketa, Zaldizur-reta kaleko terrazan.
- ✓ **11:00etan:** Elkarleen arteko sukaldaritza lehiaketa, Gernika pasealekua.
- ✓ **16:00etan:** XLVII. Loinatx txirrindulari proba 2. mailako amateurrentzat.
- ✓ **16:00etan:** Umeentzat Mozorro tailerra.
- ✓ **16:00etan:** Gaztetxoentzako xake-lehiaketa, Ezkia-ga Auzo etxean.
- ✓ **17:00etan:** Ume mozorro-tuen bilkura Barrendainen.

- ✓ **18:00etan:** Umeentzako Dantzaldia Auskalo taldearekin, Joan Iturralde plazan.
- ✓ **00:00etan:** Mozorro-tuen jaitsiera, Barrendaindik.
- ✓ **01:30etan:** 'El gran carnaval de Cuba' taldeak 'Esto es Cuba, caballero' lana aurkeztuko du Bideluze plazan.

Maiatzak 18, igandea:

- ✓ **90:00etan:** Iturengo Zantzarren esnadeia.
- ✓ **11:30etan:** Pala txapelketaren finala, Batzokian.
- ✓ **18:00etan:** Irungo San Bizente ikastetxeko majoretten desfilea, Urantzuko dultzaineroak alaituta.
- ✓ **19:00etan:** Herri kirolak Barrendain plazan: Saralegi-ren marka hausteko saioa.
- ✓ **19:30etan:** Goloka taldearen 'Zirkoa' ikuskizuna, Kale Nagusian.
- ✓ **20:00etan:** Kresala Euskal Dantza taldea, San Martin plazan.

BAREA TABERNA

Festa onak pasat!

Zaldizurreta Kalea ☎ 16 19 51
BEASAIN

ITZALA taberna

Zaldizurreta, 3
☎ 88 30 24
BEASAIN

BESTE BAR
OGITARTEKO
PINTXO
KAXUELITAK
SINAZIO 1 ☎ 160284 - BEASAIN

ÑAÑARRI taberna

Kale Nagusia, 1 ☎ 88 06 59
BEASAIN

NAGASAKI Taberna

Sartu zure giroan!

☎ 88 15 67
J. M. Iturrioz BEASAIN



Festak ondo pasa!

BASAKANA

ITURRIOZ, 11
BEASAIN

PANGAEA TABERNA
BEASAIN
MARTINA MAIZ - 3

PUB ASTI
Zaldizurreta kalea
☎ 88 45 06 BEASAIN

Blues rothers
BEASAIN



- Iragazkaiztekoak
- Montairu eta ormigoientzako gehigarriak
- Ormigoiaaren tratamenduak
- Dilatazio juntak
- Erretxinak

Senpere Merkatal Zentrua
1. solairua (3. zkia.) BEASAIN
© 88 9350 Faxe: 880688



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 88 40 57 ☎ 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

BEASAINGO



EUSKALTEGIA

**'Euskaraz mintza
hori da gure hitza'**

San Martin Pl, Kultur Etxea
☎ 889094
BEASAIN

GOIERRI
Auto recambios

**Autoen
zerbitzu
orokorrak**

Nafarroa Etorb., 29
☎ 88 45 50 - 54
Faxe: 88 88 09
BEASAIN

BEASAINGO LOINATZ JAIK



**BEASAINGO
UDALA**

Beasaindar estimatuok:

Dagoeneko urtebete pasa da nik lehenengo agurra egin nuenetik.

Etengabeko iharduneko urtea izan da, izan ere, Beasainako garrantzitsuak diren obra ugaritan buru-belarri sartuta baikaude. Obra horiek, zalantzarik gabe, endredo ugari sortuko dituzte, baina ulermen eta eraman handiz jasango ditugula uste dut.

Bestalde, urte berezia dugu, izan ere, aurtengo urte osoan zehar, gure zaindari Loinazko San Martin hil zuteneko 4. mendeurrena ospatuko baitugu.

Aurkezten dizuedan Loinatz jaiotako egitaraua, kultur eta kirol-erakunde guztien eta Udalbatzaren ahaleginen ondorio da, eta ziur nago, beasaindar guztiok eta egunotan bisitatuko gaituztenak ongi dibertitzeko balio izango duela.

Oroitzapen berezi bat izan dezagula, arrazoi desberdinengatik egunotan gure artean izango ez diren beasaindar guztiekiko.

Besterik gabe, alaitasun eta kemenez betetako Loinatz Jai Zoriontsuak opa dizkizuet guztioi.

Jon Jauregi Berezartua
Alkate-Udalburua

Legorretako jaiek aurrera jarraitzen dute

Maiatzak 9, ostirala:

- ✓ 10:00etan: Diana dultzaineroekin.
- ✓ 10:00etatik 13:30etara: Haur jolastokia, Kirol zonan.
- ✓ 14:30etan: Zikiro jatea Bilkoin elkartean.
- ✓ 15:30etatik 18:00etara: Haur jolastokia, Kirol zonan.
- ✓ 19:00etan: Haurrentzako Play-Backa.
- ✓ 23:00etan: Helduentzako Play-Backa.

Maiatzak 10, larunbata:

- ✓ 10:00etan: Diana dultzainarekin.
- ✓ 11:00etan: Haur jolasak.
- ✓ 13:00etan: Txakolin dastaketa Iraunkorrek txaranga alaitua.



- ✓ 13:00etan: Herriko XV. Paella txapelketa.
- ✓ 14:30etan: Lagunarteko Herri bazkaria, plazan.
- ✓ 16:00etatik aurrera: Mozorro eguna.
- ✓ 17:30etan: Helduentzako Jokoak plazan.
- ✓ 23:30etatik 3:30etara: Drindotsekin dantzaldia.
- ✓ 01:30etan: Mozorro lehiaketaren sari banaketa.



Maiatzak 11, igandea:

- ✓ 10:00etan: Diana dultzainarekin.
- ✓ 12:00etan: Erraldoiak eta buruhandiak, Eneritz eta Naiara trikitilariekin.
- ✓ 13:00etan: Herriko haurren arteko pilota partiduak.
- ✓ Ondoren, 14:30ak arte: Kalejira Eneritz eta Naiara trikitilariekin.
- ✓ 17:30etan: Bilkoin eta Jota-Kea arteko III. Pilota txapelketa.
- ✓ 18:00etan: Kalejira Iraunkorrek txarangarekin.
- ✓ 19:00etan: Haur danborrada.
- ✓ 22:30etan: Gizon Pikuaren ehorzketa.

Ignacio Garmendia Goya

- ✓ Txatarra, altzairu txirbil eta metalen erosketa
- ✓ Neurri ezberdinetako edukiontzien zerbitzua
- ✓ Merkatuko salneurririk egokienak

Alderdieder, 1 ☎ 80 64 29 - Faxe: 80 61 14 **LEGORRETA**

Sagardotegia
aulia

Aulia-enea
☎ 80 60 66

LEGORRETA

ARIZPE LANTEGIA

Pedro Mujika

Soldaketa elektriko eta autogenoan lanak

☎ 80 60 98

Eguzki Etxea **LEGORRETA**

OLASO Taberna

Giro jatorra

Guadalupe Auzoa
LEGORRETA ☎ 80 63 55

GOIHERRI, S.A. PAPERAREN MANIPULAKETA

'Jai zoriontsuak denoi'

San Migel, 7
Tfnoa.: 80 61 90
LEGORRETA

Eneritz eta Naiara trikitilariak festak alaituz

Herriko festak direla eta, Eneritz eta Naiara herriko trikitilariengana jo dugu festei buruzko beraien iritzia jakitearren. Bi lehenengusu hauek 17 eta 13 urte daukate eta Eneritzek urte askotxo badaramatza ere musika munduan, duela bost bat urte hasi ziren bikote bezala trikitixa jotzen. Billa bonako Martin musika eskolan ikasi dute eta Naiara dagoeneko pandero ikasketak amaituta badago ere, oraindik zer ikasia badauka la aitortu digute.

Aurtengoa, festetan jotzen duten bigarren urtea izango da. Gainontzeko saioak batez ere herrian eskaintzen dituzte Kultur Astean, jubilatuen egunean eta zenbait bazkari eta afarietan. Tarteka musika eskolaren bidez Aian egiten den erromeri batera joan ohi dira. Hala ere, esan digutenez, prest leudeke beste edozein tokitan jotzeko eta gustora onartuko lituzketela beste proposamen batzuk ere. Musika mundua hobya besterik ez da beraientzat,



une hauetan konpetentzi handia dagoela eta trikitixa jotzetik bizi ahal izatea zaila dagoela aitortu digute. Ondo pasatzea da oraingoz beraien helburu nagusia.

Herritar gehienak bezala, festak hasteko irrikitan daude Eneritz eta Naiara. Gainontzeko gazteak bezperako ajea pasa ezinik dauden bitartean, bi hauek goizeangoiz jaiki eta herria alaitzen saiatuko dira. Hau ez omen da beraientzat sakrifizio handia. Izan ere, ez omen zaie lo egitea gehiegi gustatzen. Nahiago dute goizetik festetan murgiltzea. Goizean jaikitze horrek ez du ordean esan nahi gaueko giroa gustatzen ez zaienik eta ez omen diote hurrengo

egunean egin behar dutenari gehiegi erreparatzen.

Dantzan hastera berriz, izugarri kostatzen omen zaigu legorretarroi eta umeak eta bukaerarako bakarren bat animatzen bada ere, argi dago dantzarako grina ez dela legorretarren dohai nagusia. Beraien irakaslea den Martin behin Legorretara musika jotzera etorri eta dantzan inor ez zebilela ikusita larri asko joan zen gizona etxera.

Festetan zehar jendearen partehartzeaz galdegin diegunean, gazteek gehiago egin dezaketela uste dute. Gainerakoan orohar, ondo antolatuta daudela uste dute eta ekitaldiren bat aipatze-

kotan Naiarak play-backa aukeratuko luke. Hala ere, gustatuko omen litzaieke festetan talde berriak entzutea, plazan giro hobea egotea eta batez ere helduen danborrada berreskuratzea.

Jakina denez, aurtun ez da irrintzi txapelketarik izango, txiste lehiaketak ordezkatu duelako. Aurreko urteetan paper polita egiten bazuten ere, ondo iruditu zaie aldaketa hau eta bigarren honek partaidetza hobea izango duelakoan daude.

Udala ondo portatzen omen da Eneritz eta Naiara-ekin, eta urte askotan festak alaitzen jarraitzeko prest daude. Ziur gaude herritarrok animatzeaz gain, beraiek ere primeran pasako dituztela aurtengo Azintzio-tako jaiak.

Gainerakoei esan, bost egunak topera pasatzeko. Gehiegikeria eta zelegekeria guztiak onartuak daude egun hauetan eta ez izan zintzoegiak. Eta hori bai, ondo-ondo pasa festak.

Josune Amondarain

**GUADALUPE
JATETXEA**

Festak ondo igaro!

Guadalupe auzoa

☎ 80 63 85

LEGORRETA

**PIKONDO
TABERNA-k**

festa zoriontsuak opa dizkizue!

Guadalupe auzoa

☎ 80 62 71

LEGORRETA



eredu S. Coop.

Ola auzoa,4

20260 LEGORRETA

☎ 80 61 00 - Faxes: 80 63 74

BEASAIN

Bailarako beste herri batzuetan egiten ari den bezala, Beasaingo herriak ere soka-dantza berreskuratuko du Loinatz Jaiei barruan. Udal Korporazioak, igandeko meza ondorenean San Martin plazan, soka-dantza egingo du. Ohitura zaharrek diotenez, meza ondoren egiten zen dantza eta udal enparantzan. Soka-dantza honetan alkate eta zinegotziek parte hartuko dute. Horretarako herriko dantza taldearekin batera prestatu dira.

Herrietako jaiak santu ezberdinen omenez egiten dira, gure herriaren kasuan San Martin omentzen dugu jaietan, eta horren inguruan ordena eta desordena nagusitzen dira. Alde batetik protokoloak, prozesioa, otordu bereziak, eta bestetik desmadrea, parranda, baikoitzak bere bidea jarraituko du. Egun batzuetan biak nahasian biziko dira, ordena eta anabesa.

Ordena da kasu honetan jakin nahi duguna, oroimen zeinuak jasotzen dira jaietan. Udal-botorearen inguru-

ruan badaude erreferentziat hartu ditzakegun zeinu batzuk. Banderak esanahi militarra du eta honen atzetik Alkateak herri-ospakizunetan agertzen duen zuma dator. Agintaritzaren indar boterearen ezaugarria Alabarda da. Ibaiertz edo paduretako hiritarren indar zizilizaileen beste adierazgarria Mazolariak dira, zilarrizko mazo eta ileordeetan estaliak azaltzen direnak. Alkate eta zinegotziek beren gizarte-ordezkaritzaren adierazgarri, zuma-zati bat dute eskuetan, beren baitan tolestua edo bilduta. Soka-dantza prozesu guzti honen gailurra izaten zen, Gipuzkoako Alkateen protokolo koreografikoa zena, bertan,

udal-ordezkaritzak sokaren metaforapean, berea zuen Herriko Plazagunea (Udaletxe aurrekoa) giza sokaz "lotzen" zuten. Soka-dantza, euskaldunontzat betidanik bihotza oroimenera lotzen dion dantza izan da. Oroimenez dantzatzeko da eta gogoramenek bizitzen.

Saralegi marka hausten

Mieltxo Saralegi leitzar harrijasotzailea marka hausten saiatuko da, maiatzaren 18an, arratsaldeko 7.00etan, Barrendain plazan. 327 kiloko harritzarra bizkarrera igotzen saiatuko da. Harrijasotzaileek gain, beste hainbat ekintza ere izango da.

Erretiratuen festak

Asteazkenean eta ostegunean erretiratuek ere festa izango dute. Asteazkenean, esaterako, 19:30etan, Erretiratuen Gurea abesbatzaren kontzertua izango da Usurbe Antzokian. Ostegunean, 19:00etan, dantzaldia izango dute musika-talde beasaindar batekin, Erretiratuen etxean bertan.

Txoznetako egitaraua

Eskisabelen kokatuko dira txoznak.

Maiatzak 9: Sardina jana, 19:30etan.

Maiatzak 10: Aitor Furundarena, 20:00etan.

Maiatzak 11: Antzerkia 19.30etan eta ondoren, Potraino eta Ttak musika taldeen kontzertua.

Maiatzak 16: Kontzertua, 22:00etan: Etsaiak eta Nuevo Catecismo Catolico.

Maiatzak 17: Kontzertua: Iluna beltz eta beste talde bat, 22:00etan.

Izaskun Salazar
L.A.

Estaligabeko igerilekuak hartzeko aukera

Estaligabeko igerilekuetako zerbitzuak kontratzeko baldintza tekniko eta administratiboak onartu ziren apirilaren 28an. Kontratuaren helburua igerilekuetako zerbitzuak burutzea izango da: garbiketa, mantenua, sorosletza, harrera eta taberna. Baldintza Pleguak Antzizar Kiroldegiko bulego orokorretan jaso saitezke. Proposamena hala nahi duten lagun talde edo enpresek aurkez dezakete, Antzizar Kiroldegian, maiatzaren 13rako.

LOPETEGI

AUTO ESKOLA

GIDABAIMEN MOTA GUZTIAK

Igartetxe, 2
Oria Kalea, 14

☎ 88 21 74
☎ 65 11 17

BEASAIN
TOLOSA

APURKA
OIHALAK KILOKA

Jantziak neurritara (heldu eta haurrentzat)
Baita moztu eta probatu ere

San Inazio, 6 - A
☎ 88 90 10 **BEASAIN**

JUANITA ARANBURU
OINETAKOAK

Festa onak pasatu!

Kale Nagusia, 36
☎ 88 01 27 **BEASAIN**

**AZURMENDI**

Harategi - Urdaitegia

San Inazio, 6 ☎ 16 16 74 - 16 13 28 **BEASAIN**
Victor Mendizabal, 2 ☎ 88 47 65 **ORDIZIA**

SEGURA

Santa Barbara auzolanean berritua



Auzolanean aritu diren gehienak eta otorduak prestatzen zizkiena.

Orain 24 urte, ermittaren alde bat erre zenean egin zitzaion azken erreteila Santa Barbarako basilizari. Oraingoan, maiatzaren 1eko zubirako beste planik egin gabe, Kortaberri, Ermaso eta Laiotz barrioko baserrietako 20ren bat lagun goizetik gauera aritu dira 4 egunez, teiltuari onduline, lata eta teila berriak jartzen, aldare gaineko sapaia berritzen eta kanpo eta barru margotzen. Honek guztiak milioi erdiko aurrekontua du. Hala ere, honen kronikarik hoberena, Kortaberriko Felix Lardizabalek idatzita aldare gaineko sapaian gordeak izan diren 4 bertsoek azaltzen dute. Honak bat:

*Kortaberriatik hiru bizitzak
Urbiztondo eta Kortai
Ermasotikan Elortzatarrek
badira beste hiru anai
Aizkoetatik ta Oriamuño
Xamixentetik ere bai
Egileordik Aldataerdi
Aldaola ez dut ahaztu nahi
merezki dute eta eskerrak
eman bihotzetik denai.*

Asentzio eguna maiatzaren 8an bada ere, maiatzaren 11n ospatuko da Santa Barbarako eguna. Goizeko 9:00etan izango da auzoan hildakoen aldeko meza. Igo berrientzat kafea, anixa eta gailetak pronto izango dituzte Kortaberriarrek. Meza

ondoren, berriz, hamaiketakoa eskainiko dute, Udalarren laguntzaz. Errito nagusia meza aurretik egiten da: ixipu modura bertako 31 pagotako adar bat erabiliz, lurrak, abereak eta etxeak bedeinkatuko dira 4 haizetara.

Gipuzkoako txapelduna

Apirilaren 26an Ordiziako Altamira estadioan, pisujaurtiketan, Maite Telleria Gipuzkoako txapeldun geratu zen kadete mailan. Maitek, 11,88 metrora bota zuen 3 kiloko bola, orain arteko bere marka hoberena lortuz.



nentzako aulkiak eta mahaiak utziko ditu txanbolinpen. Prontxiok 100 litroko barrikatik ateratako ardoa, afal aurretik nahiz afarian edan ahal izango da. Ardoa, Ordiziako "San Juan" bodegatik ekartzen dute eta Atiberko hozkailuan edukitzen dute 24 orduz prexkatzen. Partiketan ibiltzen direnek diotenez, urtero husten omen da barrika. Argazkian, herritarak iazko San Ixidro eguneko ardo partiketan.

Bola-jokoa

Gipuzkoako bola txapelketa bukatzeko 3 jardunaldi falta direnean, 3 herritar azaltzen dira lehenengo 5 postuetan: 1go Xepeño Agirre (657 brilla), 2. Martxeliño Agirre (650 brilla) eta 5. Jokin Izagirre (630 brilla). 7. Antonio Agirre doa (628 brilla) eta 18. Joakin Izagirre (613 brilla).

Pelota

Iñaki Artolak, De Luz zumarragarra lagun zuela, Intxaurrendoko afizionatu mailako txapelketa bereganatu zuen maiatzaren 1ean, Muruamendiaraz eta Apeztexeari 22-18 irabazita.

Etxean 1-2 galdu ondoren, herriartekoaren itzuliko partidua, maiatzaren 9an, 21:30etan. jokatuko dira Zaldibiako Resti frontoian.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Infantilak: Aizkorri 2-1 Zarautz. Kadeteak: Billabona 1-3 Aizkorri. Jubenilak: Aurrera 3-1 Segura. Erre-

jionalak: Segura 1-3 Aretxabaleta.

Asteburuan etxean: Jubenilak: Segura-Zarautz. Zapatuan, 16:00etan.

Labur labur

● Apirilaren 24an, Beasainen, jubilatuen eskualdeko txapelketan, Felix Oiarbidek eta Patxi Imazek osatutako bikotea izan zen irabazlea potean. Xabin Aldanondo eta Inazio Urbizu, berriz, txapeldunorde geratu ziren tutean. Felixek eta Patxik, eskualdeko txapelketan parte hartuko dute.

● Maiatzaren 1ean, Bergaran korritu zen 2.mailako kadeteen "XXXV. Labe garaiak saria"n, Jon Garzian-diak 2. egin zuen. Jubenil mailako Beheko barrioko karrera, Anatz Mujikak irabazi zuen; herriko lehen sailkatuaren trofeoa Unai Paredesentzat izan zen.

● Maiatzaren 11ko Herri Urratserako Elorri K. E.ak antolatu duen autobusa, 8:30etan irtengo da plazatik. Autobus txartelak, Elorripe tabernan 1.000 pezetan.

● Urtero egin ohi duten afariaren orde, Odol-emaileen Elkarteak, txangoa egitea pentsatu dute aurtan. Egunpasa, Erriberrira, maiatzaren 25ean izango da 9:00etan irtenda (3.500 pta bazkari eta guzti). Odol-emaile bakoitzak lagun bat eraman dezake eta izenak maiatzaren 18rako eman behar dira Jermanenen edo Drogerian.

● San Joan festak antolatzeko 3. bilera hilaren bukaera aldera egingo da. Batzordekoek, dei berezia egin nahi diote jende gazteari bilera ager dadin.

Joseba Telleria

ZEGAMA

San Adrian eta inguruen kondaira



Honelaxe du Xabier Azurmendi Agirreren argitaratutako azken liburuak izenburua. Joan den apirilaren 25ean aurkeztu zen Lazkao-Udaletxean, bere aurkezpena Euskal Filologian Lizentziatua eta Etnologoa den Luis Mari Zalduak egin zuen. Besteak beste liburu hau Gerriko Ikerlan Sarietara aurkeztu zenean bertako epaimahaikide izateaz gain, Xabier Azurmendiren bizitzaren azken hilabeteetan bere konfidantza irabazia zuen aipatutako lan honen zuzenketarako bere paregabeko laguntza eskainiz.

Liburua lau zatitan dago banatua: Erromatarren urratsak eta Santiagoko bidea; Tenplarioak Zegaman

eta San Adrian erdi aroan eta aro modernoan; San Adrian kristau ikuspegitik; eta idatzitako eta ahozko literatura San Adrianen.

Gai hauei buruz datu eta aipamen ugariak agertzen ditu, horrez gain, bereziki zegamarrontzat argazki interesgarri ugari. Liburu hau besteak beste Zegamako Udalaren eta Kultur Etxearen dirulaguntzaz argitaratu da. Maria Jesus Ariztimuñoren dendan salgai dago, 700 pezetan.

Udazkenerako 'Atzoko Zegama' izenburua duen liburu argitaratzeko asmoa dago, bertan Luis Mari Zalduak aipatu zuenez, liburu "mundiala" omen da, edo-

zein herrik ez omen du horrelako lanik eskuartean. Penagarria benetan Xabierrek egin zituen lan hauek berak argitaratuta ikusteko suerterik ez izatea!

Maiatzeko ekintzak

Kultur Etxeak eta Udalak maiatzerako antolatutako ekintzak hauek dira:

Maiatzak 9: Musika Eskolak antolaturiko piano audizioa, 19:00etan, Elizan.

Maiatzak 11: Herri Urratserako autobusa, 600 pezetaren truke. Izena Udaletxean eman behar da.

Maiatzak 18: Arantzazurako Peregrinazioa. Autobus bereziak jarriko dira Apeaderorako. Igandean, lehenengoa goizeko 8.00etan aterako da eta bigarrena 10.00etan. Arantzazutik Zegamarako autobusa, igandean, iluntzeko 8.00etan abiatuko da. Astelehenetan, Zegamatik Arantzazura, 8.00etan irtengo da. Itzulera arratsaldeko 4.30etarako dago iragarria.

Igandeko goizeko autobuserako izan ezik, gainerakoetarako behar beharrez-

koa da izena eman eta txartelak jasotzea. Herrian erroldatuek lehentasuna izango dute.

Maiatzak 19: Pazkoa Bigarrenetan, Udal Arkupe-etan egingo den afarirako izena maiatzaren 13a aurretik eman behar da, Udaletxean.

Kirol albisteak

● Txirrindularitza: Urnietan eta apirilaren 26an ospaturiko lasterketan, Ruben Zabaletak Igo postua eskuratu zuen.

● Sokatira: Bihar, hilak 10, Azpeitian, arratsaldeko 4.00etan, Eskolen arteko Gipuzkoako Sokatira txapelketa jokatu da. Bertan, Aitzuriko bi talde plazaratu dira, neska eta mutil alebinak hain zuzen ere.

● Futbola: **Maiatzak 11:** Urola - Aitzgorri eta Eibar - Aitzgorri. **Maiatzak 18:** Aitzgorri-Almen eta Aitzgorri-Tolosa. **Maiatzak 25:** Real Sociedad-Aitzgorri eta Idiazabal-Aitzgorri.

Eduarne Albizu

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

GOIERRIKO ZURAK

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e. a.

Hiribarren, z/g

☎ 88 80 23

LAZKAO

ALUMINIOS

AE
EUSKADI, S. A.

Zubi termikoaren haustura
Aroztegiatarako profilak
Bainu manparak
Aluminio xafla normalizatuak
Makinaria

Biltegia: ☎ 16 11 66
Bulegoak: ☎ 88 93 50
Faxa: 16 02 91

10 Poligonoa
34-36 Pab.
BEASAIN

ORDIZIA

Txikitxaro: haurrek euskaraz jolasteko

Hitzaro Euskara Elkartearen ekimenez sortu berria da Txikitxaro aisitaldea. Elkartek aukeraketa eta presaketan baten ondoren 8 begirale kontratatu eta lanean jarri ditu larunbat goizetan. Aisitaldearen helburuak bi: haurrak aisialdiko ekintzen bidez hezi eta dibertitzea, eta bestetik guzti hori euskaraz egin dezaten lortzea.

Esan bezala larunbat goizero elkartzen dira izena eman duten 6 eta 8 urte bitarteko haurrak 8 begiralearen pean. Guztira 12 saio egiteko asmoa dago eta orainarteko balantze txiki bat eginez gero, nahiko gustora daude, bai Hitzarokoak, baita begiraleak eta baita haur eta hauen gurasoak ere. Hasierako 6 saioak Jakintza ikastolan izango dira eta hurrengo seirak Urdanetan. Datorren urtean ere jarraitzeko asmoa du sortu berri den Txikitxaro aisitaldeak.

Bestalde, eta Hitzarorekin jarraituz, esan irakasleentzako haur-jolas ikastaroa ere martxan jarri dutela jadanik. Maiatzaren 5, 19 eta 26a aukeratu dira klaseak emateko egun gisa eta guztira 35 irakasle eman dute izena. Urtxintxa eskolako 3 lagun arduratuko dira klaseak aurrera eramaten eta helburua bakarra, irakasleek eskola orduetan haurrei euskarazko jolasak erabil ditzaten bultzatzea.

Horrezaz gain maiatzaren 30erako kantu afaria antolatzen ari dira baita ere. 35en bat euskal kantu biltzen dituen esku-liburua prest dute jadanik eta herriko elkarteetan banatzekoak dira laster. Afariaren bitar-



Gurasoak sukaldari

Urdaneta eskolako gurasoa den Mari Jose Ansalasek, sukaldean dituen abileziak eta trukoak erakutsi dizkie beste zenbait gurasoei. Astelehen eta ostegunetan izan da ikastaroa eta denetarik ikasi dute egiten. Lehenengo platerak, bigarrenak eta baita postreak ere. Haurrak gustora hartuko dituzte bai, amek prestatzen dituzten jaki goxoak!

tez otordueta garai batean euskaraz kantatzeko zegoen ohitura hori berreskuratzea izango da helburua. Une gozo eta atsegin bat pasatzeaz gain, noski.

Arana kaleko terraza

Arana kaleko terraza handiak berritze lanak jasango ditu hemendik gutxira. Urte asko daramatza beronek egoera txarrean eta eraiki zuen enpresaren konpontzeko ezetzaren ondorioz datoz arazoak. Tribunaletara jo eta arrazoia Arana kaleko bizilagunei eman ondoren, enpresa eraikitzaileak ez du bere zatia bete. Azkenik Udala tartean sartu eta lanak aurrera eramango dira. Badirudi gastuak Udalaren kontu joango direla eta trukean enpresa eraikitzaileak bertako 4 merkatal-lokal emango dituela.

Kirol patronatua

Pilotalekua, Altamira futbol-zelaia eta Trebijano rugby-zelaiaren gestioak

Udalaren esku geratuko dira hemendik aurrera. 1990ean sortu zen honetarako Kirol Patronatua, baina orainarte Majori Kiroldegia arduratzen besterik ez zuen. Gai nontzekoak kontratu edo zesio baten bitartez moldatuak zeuden. Hemendik aurrera, ordea, Udala arduratuko da aipatu instalazioen mantenimendua eta abarretaz. Ordizia Kirol Elkartea, Ordizia Rgby Taldea eta Oiangi pilota Elkartekoak hemendik aurrera, beraz, kirol arduretaz arduratuko dira soilik.

Txindoki A.T. txapeladun

Gipuzkoako Atletismo Txapelketaren barruan emaitza onak lortu zituen Txindoki Atletismo Taldeak. Bi jardunaldiz osatua zegoen txapelketa. Lehena Donostian jokatu zen eta bigarrena apirilaren 26ean Ordizian. Bertan, gizonezkoen mailan Txindokiko atletek talde mailako garaipena lortu zuten, honekin larunbat hone-

tan Gasteizen jokatu den Euskadiko txapelketarako txartela lortuz. Emakumezkoek ere ez zuten lan makaila egin, azkenik hirugarren geratu baitziren. Hauek ere Gasteizen izango dira hilaren 10ean.

Festak gerturatzen

Bi hilabete t'ardi eskas gertatzen direnean herriko festa nagusiak iristeko, Jai-batzordea hasia da jadanik prestatetekin. Hau dela eta, herriko koadrilekin batera lehen bilera burutu zen apirilaren 21ean. Guztira 14 laguntaldetako arduradunak besterik elkartu ez baziren ere (kontutan izan guztira 60ren bat direla), eztabaidatu ziren hainbat gai. Besteak beste bertaratutakoek iazko aurrekontuari buruz galdetzean, honako erantzuna jaso zuten J.M.Lariz Jai-Batzordeko buruaren ahotik, iaz gastatu ez zen dirua beste gastu batzuk estaltzeko erabili zela.

Aurtengo aurrekontua 9 milioi t'ardi ingurukoa izango zela ere adierazi zuten eta nahi duen orori deia luzatu Jai-batzordean parte har dezan. Danborradarako karroza prestatu nahi duten koadrilek ere jakin dezatela ekainaren 2a baino lehen bozetoa aurkeztu beharko dutela udaletxean. Karroza bakoitzeko 150.000 pta. emango ditu Udalak, oinarria, fokoak eta berau egiteko lekuaz gain. Beste bilera bat egiteko deialdia luzatuko zutela ere adierazi zuen Festa-Batzordeko buruak.

Aitor Calvillo

LAZKAO

Herriko jaiak amaitu berriak direnez, errepaso modura atzera begiratu eta kontakizun garrantzitsuenak izan direnak gogoratzen saiatuko gara.

Egia esan, lehenengo egunetako eguraldi kaxkarrak festak zapuztu zitzaizkeen, baina, azkenean, giro ona eta jatorra nagusi ziren. Honen adibide dugu larunbateko mozo-rrero gau arrakastatsua, eta nola ez, maiatzaren lehen osteguna, Lazkaoko kaleak zeharkatu zituen haurren danborrada; hasiera batean igandean zen egitekoa, baina euriaren erruz atzeratzea erabaki zen.

Bestalde, haurren eguna apirilaren 26an ospatu zen. Goizeko 11.00etan Haur Alkate-Alkatesaren ongetoria jaso zuten gaztetxoek eta, ondoren, hainbat ekitalditan parte hartzeko parada izan zuten, Drindots musika taldearekin egindako karaokean, adibidez.

San Prudentzio egunari dagokionez, aipatzekoak dira Prudentzio Deunaren ermitan burututako Meza na-



gusia eta plazan izandako artesau azoka. Era berean, arratsalde partean Oin Arin dantza taldeak plazan bertan eskainitako saioak jende ugari bildu zuen.

Koadrila eguna asteazkenean burutu zen; eguraldia lagun, eguerdian hasi eta egun osoan koadrilek gazteengan ohikoa den festa go-goa zabaldu zuten herrian.

Gainerakoan, jai hauetan ez dira falta izan kirola eta musika emanaldiak. Kirolarloan, apirilaren 25ean, Kiroldegian izandako boxeosaioa dugu aipagarri; bertan, Montxo Quina lazka-

Festa giroa nagusi

tarrak bere borrokaldia irabazi zuen. Igandean, berriz, Lazkaoko LIV. txirrindulari proba izan genuen ikusgai. Egia da eguraldi txarra izan zela nagusi egun osoan, baina 23 urtez azpiko eta elite mailako 300dik gora txirrindularik hartu zuten parte lasterketan. Banesto taldeko Francisco Mancebo irten zen garaille.

Bestetik, musikari dago-kionez, emanaldirik arrakastatsuenak herriko taldeek eskainitako kontzertuak izan ziren; izan ere, Drindotsek, plazan, eta Fist Fucking eta Declive taldeek, txoznetan, jende ugari bildu zuten.

Jai giro honetan, ordea, izan zoritxarreko gertaerarik ere, koadrila egunean goizaldean barraka inguruetan gertatutako istripuan, alegia, 'Twister' deritzon aparatutik kabinetako bat askatu eta jendartera erori zen. Zorionez, kabinan zeuden hiru lagunetatik bik zauri arinak soilik izan zituzten.

Azkenik, ezin aipatu gabeko utzi, maiatzaren 3an eta 4an ospatu ziren Lazkaomendiko jaiak: bi egun horietan bildutako jendetzak jai hauen arrakasta islatzen du.

Koadrilen arteko futbol txapelketa

Herriko festen hasierarekin batera iritsi zitzaion amaiera koadrilen arteko futbol txapelketari.

Aurten, Garaje Lazkao taldea izan da irabazlea. Egia esan, merezitako garaipena hartu dute lagun hauek, denboraldi osoan futbol maila bikaina erakutsi baitute. Finalean, kostata izan arren, Jauregi Elektrizitateko arerioei gailendu zitzaion. Hirugarren eta laugarren postuak Gurutze taberna eta Satarratxak taldeek lortu dituzte.

Bukatzeko, esan beharra dago golegilerik onena eta gol gutxien jaso dituen atezaina Seapotok taldeko Aitor Eguren eta Alexander Salaberria izan direla.

*Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu*



GESTORIA Biok

(BANDRES)

ASEGUROAK

Errenta aitorpenak egiten dira

Goierrri, 12 behea

ORDIZIA

☎ 88 44 00
88 12 58



IBAI-ONDO


ZURGINTZA

ALTZARIAK

P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g

☎ 880543 BEASAIN



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



Barandiaran

ZERAMIKAK

☎ 88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN

IDIAZABAL

Maiatzeko loreak

Maiatzarekin batera, herrian aspalditik errotuta dagoen ohitura berri egiten da urtero. Maiatzeko larunbatetan, goizeko 8.00etan loreak ospatzen dira Serotegiko ermitan. Herritar ugari hartzen du larunbat goizean Albitxu alderako bidea Gurutzetako Ama Birjinari otoitz egin eta hari kantatzeko.

Aspaldiko ohitura da herrian maiatzeko loreak ospatzea. Orain larunbatetan bakarrik izaten da, lehen ordea, egunero izaten zen. Maiatzean egunero errosarioa errezatzen zuten parrokiari, eta Ama Birjinari kantatu egiten zioten. Maiatzeko igandetan gainera, ospakizun berezia egiten zuten parrokiari. Aingeruz jantzitako haur talde batek lora petaloak botatzen zituen elizan eta pulpito azpian zegoen armonioan emakume talde bat aritzen zen kantuan. Aingeruz jantzitako haurrek emakumeen abestiei erantzun egiten zieten.

Herritar ugari ditu goan oraindik ere beraiek esaten duten moduan,



Garai batean maiatzean egunero joaten ziren "loreetara".

"maiatzareko loreak", batak baino gehiagok esan digu gustora etortzen zirela maiatzean egunero errosarioa, "hura baserriko lanak utzi eta herrira jeisteko aukera bikaina izaten baitzen".

Dimisioa

Martin Lizarazu eta Andoni Alberdi HBko zinegotziek apirilko plenoan bere dimisioa aurkeztu zuten. Herri Batasunak herritarrei zuzendutako ohar batean dio, "Andoni Alberdi eta Martin Lizarazu, HBko zinegotziei zuzenduriko mehatxu eta umilazioak ez du justifika-

ziorako lekuri (...) Martin eta Andonik Udaletxeko lanetatik dimisioa aurkeztu duten arren, orain artean bezalaxe Herri Batasunako eta Ezker Abertzaleko arlo ezberdinetako zereginetan jarraituko dute".

HBk bi zinegotzien ordezkioak izendatu ditu, aurrerantzean Satur Intxaustik eta Luis Maria Antiak beteko dute lan hori. Orain arte HBk zuzendu duen Kultura eta Kirol batzordea ere uztea erabaki du.

Abeltzainen elkarteak

Herriko abeltzainak, abeltzainen elkarteak sortzeko bi-

lera egiten ari dira azkenaldi honetan. Bilera horietan elkarteak zuzenduko duen junta aukeratuko da besteak beste. Juntan bina behorrale eta behizale eta beste bi artzain egongo dira. Elkartearen erreglamendua eta lanerako bideak ere zehazten ari dira herriko abeltzainak.

Igerilekuko arduraduna

Aurtengo udan igerilekuan lanean aritu nahi dutenek bete beharko dituzten baldintzen berri eman du Udalak. Igerilekuko arduradunak herritarra eta 18 urtez gorakoa izan behar du. Euskara ondo menperatu eta uretako sokorrismo titulua edukitzea ere eskatzen da. Arduradunak berarekin lanean arituko den taldearen berri eman behar du, eta taldekoek ur sokorrismo titulua edukitzea baloratu egingo da. Interesa dutenek maiatzaren 20 (asteartea) baino lehen eman beharko dute izena Udaletxean. Ekainaren hasieratik iraila bitartean bete beharreko lana izango da.

Xabier Urteaga

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

88 04 53

BEASAIN

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

ATAUN

Saratarrak bisitari herrian



Saratarrak eta ataundarrak elkarrekin.

Lapurdiko udalerrria da Sara, Larrun mendiaren magalean kokatua dagoena. 2.000 biztanle inguru ditu eta saratarrok nekazaritza, abeltzantza eta turismotik bizi dira gehienbat. Gaur egun, historiaurreko aztarna garrantzitsuak (trikuharri, harrespila, tumuluak) eta koba ikusgarriak kontserbatzen ditu, kontserbatu ere, neurri handi batean, behinik behin, bere garaian Joxemiel Barandiaranek haietan egindako lanari esker. Hain justu, Joxemiel Barandiaran da Ataun eta Sara elkarrekin ezinbestez lotzen dituen "uztarria": bata bere jaioterria eta urte askotako bizilekua; bestea, berriz, bere unerik latzenetan, er-

besteko urte haietan, semetzat hartu zuen herria.

Horregatik, apirilaren 26an ataundarrok jaso genuen bisita hau, Sarako korporazioaren bisita, hain zuzen, ez zen debaldekoa, helburu jakin bat zeukana, baizik. Izan ere, bi herri on uztarketa edo anaitze bidean ematen den pasuo berri bat da, Joxemiel Barandiaranek hasitako Sara-Ataun lotura edo harremana estutu eta sakontzeko. Jean Aniotzbehare alkatea buru zuen taldeari kontsejupean egin zioten ongi etorria Udaleko ordezkariak eta alderdi politiko nahiz herriko elkarte ezberdinetako partaideak. Eate abesbatzak ere hartu zuen parte ongi etorri hone-

tan 'Agur jauna' eta 'Xalbadorren heriotzean' kantatuz. Udaletxe bera ikusi ondoren, hamaiketako; eta gero, Joxemiel Barandiaran eskola eta kiroldegia bisitatzer. Azkenik, jakina, Ataungo 'Sara'ra ere joan ziren, Lapurdiko herri honenganako esker onez eraikitako etxera, Joxemiel Barandiaran zenaren iloba Pilarrekin egotera.

Jubilatuak forman

Apirilaren 24an Beasainen ospatutako 'Eskualdeko joakoetan' herriko jubilatuek emaitza onak lortu dituzte:

- Musean (4 erregetara), Martin Aldasoro eta Rufina Begiristain txapeldunak.

- Tokan, Luzio Goikoe-txea eta Jazinto Begiristain txapeldunak.

- Botean, Juan Auzmendi eta Fernando Martin txapeldunak.

- Puntuan, Ramona Begiristain eta Josefa Sukia bigarrenak.

Zikloturistak martxan

Maiatzaren 4an eman zioten hasiera Agauntza Kirol Elkartekoek aurtengo zikloturismo denboraldiari. Hurren-

go asteburuetako irteerak: maiatzak 11, Ataun-Bergara-Oñati (87 km.) eta 18an, berriz, Ataun-Hernani (90 km.), bietan goizeko 8.30 etan martxan jarrita.

Liburutegiko boletina


Liburuaren eguna aprobe-txatuz (apirilak 23), boletina-ren aurkezpena egin zen. Udal liburutegian dauzkagun liburu interesgarrien eta azken nobedadeen berri ematen zaigu, besteak beste. Boletinaren helburu nagusia da herritarroi gogoraraztea Ataunen badugula liburutegi zerbitzua, denon esku eta denok erabiltzeko. Helduei zuzendutako mezua da batez ere, horien sentsibilizazioa lortu nahi duena.

Maiatzak 15

San Isidro eguna, baserritarrentzat ospakizun eguna dena. 11:30etan ohizko meza eta bazkaria (ordubiak alde-ra) izango dute San Martinen. Aurtun, ordea, bada egitarauan ohizkoa ez den zerbait: baserriko emaitzekin osatutako erakusketa bat (barazkiak, gazta, fruta...), bere garaian egiten zen haren antzera.

Josune Aldabe

Autowag, s.a.



Gasolina eta Diesel

88 82 54 - 88 82 62 - 888266
N-1 errepeidea, 419 Km BEASAIN



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara
Zaldizurreta, 7 88 98 44 BEASAIN

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea 88 60 70

BEASAIN



Poeta Lizardi, 2
TOLOSA
Tfn. 65 29 01

18 HILABETE

Interesik gabeko finantzaketa

GAINTZA

Bartolo Aierbe hil zaigu



Liburuaren aurkezpenean ateratako argazkia. Ezkerretik hasita, bere laguna Bixente Barandiaran, J.M. Matxain Gaintzako Udalaren ordezkaria eta Bartolo Aierbe.

Martxoaren 20an hil zen Bartolo Aierbe 90 urte zituela. Gaintzan Artxueta baserrian jaioa eta soldaduskara joan bitartean bertan bizia. Ondoren ezkondu eta kalera bizitzera joan zen, geroztik Donostiako Altza auzoan bizi zen.

Gaintza ez zuen sekula ahaztu eta beraren seinale da 82 urterekin idatzi zuen lehen liburua 'Nere mundualdia'.

Liburuko zenbait pasaje edo gehienak bere gaztealdian gure herrian bizitako gorabeheran arloan jarduten dute.

Bigarren liburua 'Zaarrak berrituz', hau hil baino pixka bat lehentxeago plazaratu zuen, lehengo ohitura zaharrak eta ordungo gertaerekin betea. Haien artean bat aipatzearren, garai bateko ezkontza separazio mota bat. Ba omen zen matrimonio bat,

elkarrekin gaizki etortzen zela eta, emazteak separatzeko asmoa zuela eta, apaizari esan zion. Apaizak eguna eta ordua jarria zieten elizan beren asmoa gauzatu zezaten. Eguna iritsi eta apaizak, biak jarri zituen, ezkonduko balira bezala, elkarren ondoan apaiza aurrean zutela. Hala, apaiza hasi zitzaizen bedeinkatzeko isipuekin batari kanka buruan eta besteari ere kanka, geroz eta buruko handiagoak emanaz. Emazteak, halako batean, apaizari galdetu omen zion noiz arte horrela segitu behar zuen eta apaizak bietako bat hil arte, ez dago separatzeko beste biderik, erantzun omen zion. Kontatzen duenez, berehala konpondu omen zituzten beraien diferentziak.

Gizon hau, aspalditik eza-guna, ez zen beste zenbait bezain ospetsua baina beti gauza politak, ahazten ez diren horietakoak egiten. Bere ga-

raian jartzen zituen bertsoak, Baserrik, irratiz plazaratzen zituen eta gero, alajaina, bi liburu idatzi. Lehen liburuaren argitaralpenean, Gaintzako udaletxean eginikoan, han izan ginen eta berarekin solasaldi bat izateko aukera izan genuen. Garbi geratu zitzaizgun bizitzak asko erakutsitako gizon horietakoa zela eta gurasoak esaten zizkiotenakin batera bere jakinduria borobildu zuena. Baita ere sinismen handiko gizona eta badut gogoan esan zidan gauza bat: izan ere oso atsekagabeturik azaltzen zen hemen go gertakizunak ikusita, gure ezin ikusiaren aurrean gure ezin eramanaren aurrean eta gogorkeria neurri gabekoaren aurrean, beraren esanez, ez da konponbiderik Jaungoikoa bitartekoa ez dela eta hori dela bidea, behin eta berriz azpimarratu zigun.

Joxe Maria Matxain

ALTZAGA

Altzagarate jaietan



Urteko herri jai eta erromeri bolada iritsi den honetan, gure herriko Altzagarate auzoan prestatu dugun erromeriaren berri eman nahi dizugu, eta bide batez, bertaratu eta hain ikuspegi paregabeak dituen toki honetan egun eder bat pasatzera gonbidatu.

Egitaraua prestatu da go eta eguraldi ona eskatzea besterik ez da gelditzen.

Maiatzak 11, igandea:

12etan: Meza Nagusia bertako ermitan.

Ondoren bertsolari saioa (Egaña eta Sorozabal) eta trikitilariak (Laja eta Landakanda).

2etan: Bazkaria (Altzagarate Jatetxean).

7.30 etan: Herri Kirolak:

*Aizkolariak: Jose Mari Olasagasti, Axen Urretabizkaia eta Iñaki Azurmendiaren aurka.

*Harrijasotzaileak: Izeta II Ondoren trikitilari eta bertsolarien saio berri bat.

9etan: Afaria.

Pako Zubeldia

ZALDIBIA

Dantzari Txiki eguna

Aurten ere giro onean ospatu zen Dantzari Txiki eguna, maiatzaren 4an. Ordiziako Jakintza, Beasaingo Aurtzaka, Urretxuko Lurra eta herriko Iztueta dantza taldeak izan ziren. Dantza dotoreak ikusteko aukera izan zen. Etxe partikularretan bazkaldu, eta arratsaldean, dantzez gain, pailazoak eta Goiatz eta Sara trikitilariak ere izan ziren.

Jaunartzeak

Igandean, maiatzak 11, izango dira jaunartzeak, 11.00etako mezatan. 8 haurrek hartuko dute jauna.

Manuel Lasarte

Maiatzaren 14an, Zaharren Egoitzan, arratsaldeko 6.30etan, Manuel Lasarte bertsolaria izango da. Garai bateko kontakizunak, pasadizokoak eta ibiliak kontatuko ditu, batez ere, Benta Berri inguruak.

Pelota

Gaur jokatu da herriarte-ko pilota txapelketako Seguraren aurkako itzulerako partidua. Seguran 1-2 irabazi zuten zaldibitarrek. Gaueko 9.30etan hasiko dira partiduak, Resti pilotalekuan.

Rufino Iraola

Ander Telleria, arku-tirolari txapelduna

Ander Telleria beasaindarra, 90ean hasi zen arku-tiroan. Probatzeko hasi zena, serio bihurtu, eta Euskal Herriko marka guztiak hausteaz gain, Espainiako txapeldunorde ere bada.

Kasualitatez hasi zen. "Oso kirol indibiduala da. Norberak nahi duenean joan daiteke entrenatzera edo botatzera, ez da besteei begira egon behar. Laneko eta ikasteko tentsioak lasaitzen dira. Konturatu nintzen jende talde bat bazegoela arku-tiroan zebilena". Astebukaeretan Goierriara joaten ziren entrenatzera. Taldea sortu zen, federatu eta lokaltxo bat eskatu zuten entrenatzeko. Gaur egun, Antzizar Kiroldegian onenetakoa den lokala lortu dute. Olaberrian ere badute zelaia entrenamendueterako.

Neguko eta udako denboraldia izaten da. Negukoa aretoetan egiten da, 18 metroko distantziara. Udakoa kanpoan, 90, 70, 50 eta 30 metrora, bakoitzean 36 gezi botatzen dira. Puntuazioa jaso eta Espainiako Federazioa bidaltzen da. "Handik listadua bidaltzen dute, Espainia mailan zein postutan zauden azalduz. Horrekin batera, hurrengo tiradaren berri ematen dute. Espainiako Federaziotik Italiara eramaten dute zerrenda, Fitara (Arku Tiraketako Na-



zioarteko Federazioa). Rankinga egiten dute. Momentu honetan Espainiako selekzioan sartuta nago. Beasaingo jaietan konzentrazioa egingo dugu. Handik beste selekzio bat egingo da, abuztuan Canadian izango den Mundialera joateko". Sidneyko Joku Olimpikoetan kirol olinpikoa izango da lehenengo aldiz. Hara joatea da Anderren helburua. Oso maila ona omen daukate euskaldunek.

Momentu onean dago Ander. Euskal Herriko marka guztiak hautsi berriak ditu, kanpoan, 5 modalitateetan. "Distantzia bakoitzekoa eta orokorra ere bai. Fitan ere, 1.300ko puntuazioa lortu dut, Euskal Herrian bakarra dago puntuazio horrekin, eta Espainia mailan 6-8. Oso tirada ona izan zen. Neguko denboraldian, Espainiako txapeldu-

nordea izan naiz".

Baina, zer behar da arkulari on bat izateko? "Kon-tuan eduki behar da, ez dela apuntatu eta botatzea bakarrik. Barometro asko daude. Arkuaren indarra neurtu, horren arabera luzera, kalkulatu zein pisu jarri behar den puntan... Teknika korporala, psikologiaren prestake-

ta berezia... behar da".

Fisikoki indarra eta erresistentzia piska bat eduki behar omen da. "Arkuak 25 kilo pisatzen du gutxi gorabehera. 144 aldiz altxatu behar da eta esfortzu handia egin behar da".

Geziak aluminiozkoak dira barrutik eta karbonozkoak kanpotik. Arkua karbonozkoa eta duoaluminiozkoa dira. "Hegazkinek duten materialekoa. Material arina eta azkarra da. Horrekin lortzen da, abiadura eta distantzia handietara bota behar denean parabola txikia egitea". Arku ezberdinak daude: arku olinpikoa eta konposatua. Arku konposatuak 3 soka eta poleak dauzka. "Modalitate horrek uzten dizu disparearekin botatzen. Bestearekin behatzarekin bota behar da, naturalagoa

da eta askoz ere zailagoa da". Arkulari gehienek konposatua erabiltzen dute.

Lehiaketez gain erakustaldiak ere egiten dituzte. Beasaingo jaietan, maiatzaren 18an, 19:00etan, erakustaldia egingo dute. Maiatzaren 22an, berriz, ETBko 'Aire aire' saioan izango da, Robin Hooden paperean. Gezi bat beste baten barruan sartuko du, eta buru gainean jarritako sagarrari ere gezia sartu beharko dio.

Escola

Antzizar Arku Tiraketa taldea dago Beasainen, Goierri osoko 30 bat lagunek osatua. Taldekako sailkapenean postu onak lortzen dituzte gainera. Eskola bat ere sortu da, haurren artean kirol hau sartzeko. "Oso kirol ezezaguna da, telebistan gutxi ateratzen da eta kirol eskolarrean ere ez dago sartuta. Suezia eta Frantzia, haurren artean lehenengo kirola da. Psikometriz aldetik asko ikasten dutela esaten dute, bere burua zaintzen ikasten dutela. Soinketa egin eta zer egin behar den ikasten duzu. Frantzia Perpignan aldean arku zelaia futbol zelaiak baino gehiago daude. Han eskola mailan sartuta dago kirola hau".

L.A.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



GEMA

OINETAKOAK

Jai zoriontsuak !

Nafarroa Etorbidea,7

☎ 88 94 45

BEASAIN

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

**BIZKARREKO MINAREN
ESKUZKO TRATAMENDUA**

- LUNBAGO, ZIATIK, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.

R.P.S. 213/97

Eskatu ordue: ☎ (929) 45 20 53 - 88 92 22

Oriamendi, 3 - 2. ezk. - BEASAIN

JOSEBA IPARRAGIRREK 'TRANPATAN' DISKOA KALERATU BERRIA DU "Nik nahi nuena da"

Txiki-txikitatik izan du gustoko Joseba Iparragirrek aintzi-nako tramankulu horren doinua. Bere auspoak, botoiak eta lokarriak gertu izan ditu beti. Hasi- siera batean trabatuz, geroxeago errepikatuz eta orain aspaldian, sortuz, ohartzerako trikiti munduan erabat mugil- du da idiazabaldarra. 22 urte bizkarrean eta tranpaz beteriko disko honekin bazterrik ilune- nak ere argitu nahi omen lituzke.

"Adin ezberdinetako edonork entzun eta belarri- ra minik ez egitea nahiko genuke. Erritmo alaiak, bi- ziaz eta goxoak elkartzen saiatu naiz, orain entzuleak aukera dezala gustukoena", dio Josebak.

"Dozena bat kanta" dira guztira, izan ere, 13.a kako- an zintzilik geratu omen da. Herri bereziren bateko pla- za bereziren batean, agian, entzun ahal izango dugu 13. hori.



Trikitilari trebe honen ondoan, pandero umoretsu (Ander San Jose), bateria sutsu (Iker Telleria) eta baju saltsero (Aitor Atxega) bat aurkitu ohi dira sarritan, erromeri eta ospakizunetan hautsak astinduz. Oraingo honetan, ordea, taldea uga- ritu egin da. Grabaketan izen handiko beste musikari eta teknikari hauek ere par- te hartu dute: Karlos Gime- nez, Mixel Ducau, Mitxel Longaron, Txema Garcés eta Josu Salbide. Hauekin batera Anderren ama den Mari Karmen Galparsorok eta Josebaren anaia den, Jo- suk ere parte hartu dute.

Abestien letrak Andoni



Egañak, Mikel Markezek, Iñaki Muruak eta Sebastian Lizasok sortuak dira. "Bon- bila aspaldi piztu zitzaidan, baina argia sortzeko mo- duan jartzea oraintxe lortu dut. Ez da lan xamurra abestiak sortzearena, zer- bait berria izan behar da, originala eta horrek hamai- ka buruhauste eman ohi di- tu", aitortu du.

Diskoan isladaturik ager- tzen da sortzailearen izake- ra eta profesionaltasuna. "Diskoaren izen berbera daraman abestia da gehien entzundakoa, orain gainera baita Euskaraoklean ere. Tranpatan, gu ere horrela ibiltzen garela eta".

Neska kontuak, ostirale- tako parrandak, musa eta beste zenbait gai biltzen di- tu 'Tranpatan' diskoak. Bai- na abesti guztien artean eta bat aipatzekotan aintzinako tramankuluari eskainitakoa hartu beharko genuke aho- tan; 'Ezin zaitut hautsi'. Jo- seba berorentzat ere esanahi berezia gordetzen duena.

Sortze lan hau guztia egin ondoren fruituak jaso- tzea geratzen omen da. He- rri bereziren bateko plaza bereziren batean ikusiko omen duzue elkar. "Zapa- tak puskatzeko beldurrik gabe etorri behintzat".

Aloña Galarraga



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA



ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
**Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN



- Esku lanak
- Ikastaroak
- Opariak

☎ 67 39 07
Euskal Herria, 11
IBARRA

☎ 88 40 56
Andra Mari, 5
BEASAIN



76. belaunaldiko Alkartasuna Lizeoko ikasleak

5. OHO-ko ikasturte amaierako argazkia da honako hau, 86-87 ikasturtekoa. Aitzol Berasategik utzi digu.

Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: Aitziber Sasiain, Aloña Garmendia, M.Jesus Garmendia (andereñoa), Eneko Garro, Iñaki Oiarbide, Harriet Ugalde eta Igor Etxeberria.

2. ilaran: Aimar Iparragirre eta Jasone Aranburu.

3. ilaran: Arkaitz Aldasoro, Iñaki Manzisidor, Aitzol Galparsoro, Alizia Gallardo, Elixabete Sanchez, Idoia Garrido eta Pili Lobato.

4. ilaran: Julen Agirre, Aitzol Berasategi, Ainhoa Lasa eta Alazne Riaño.

5. ilaran: Kristian Perez, Gorka Larrea, Ainhoa Albaina, Ainhoa Alustiza, Elixabete Arrizabalaga eta Maider Zabaleta.

Alpe

MASTER
CADENA

SUKALDEAK

SUKALDEKO ALTZARI
ETA
ELEKTRAGAILUAK



Zatoz gure erakusketa ikustera!

- Ordenagailuz diseinatu eta geuk montatuko dugu zure sukaldea.
- Formika, PVC eta haritz zuraz egindako altzariak.
- 5 urteko garantia
- Elektragailuak

Salmenta eta erakusketa

MARIARATZ, 4

☎ 88 86 84

BEASAIN




GOIERRI LANBIDE ESKOLA

24 Posta Kútza

☎ 88 00 62 - 88 00 66

Faxa: 88 83 51

ORDIZIA



97/98 IKASTURTERAKO IKASKETA MOTAK

HEZKUNTZA SISTEMA BERRIA

2 URTEKO IKASKETAK

IZEN EMATEKO EPEA:
MALATZAREN 20ik 16ra

BATXILERGOAK

- TEKNOLOGIKOA
- HUMANITATE ETA GIZARTE ZIENTZIAK (ADMINISTRARITZA)

ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOAK (ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA)

- MAKINA ELEKTROMEKANIKOEN MANTENIMENTUA
- GALDARAGINTZA ETA SOLDAKETA

GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOAK (GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA)

- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- ERAIKUNTZA METALIKOAK
- MEKANIKA PROIEKTUEN GARAPENA
- INDUSTRIA MAKINEN MANTENIMENTUA

2 URTEKO IKASKETAK
IZEN EMATEKO EPEA:
UZTAILAREN 1etik 4ra

BETIKO LANBIDE HEZIKETA 2. 4. ETA 5. KURTZOAK

IZEN EMATEKO EPEA:
MALATZAREN 20ik 16ra

4 ESPEZIALITATEAK

- ADMINISTRARITZA
- GALDARAGINTZA ETA SOLDAKETA
- ELEKTRIZITATE - ELEKTRONIKA
- MEKANIKA

GUZTI HAU 'GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA' FUNDAZIOAREN BABESEAN,
BAILARAKO UDAL ETA ENPRESEN PARTAIDETZAREKIN.

GAINERA ZERBITZU OSAGARRI HAUEK IKASLEEN ESKURA IZANGO DIRA:
GOIKERRI (Zerbitzu Teknologikoa)
IKASLAN (Lan Praktiken Tailerrak)
LAN BOLTSA

 **HEZIKETA
TEKNIKOKO
ELKARTEA
HETEL**